

kitto!

...eta

688 zkia. 2009-IX-4

ASTEKARIA



Arraten... baina URTE OSOAN

aek

www.aek.org

matrikula zabalik



Sostoa 1, 1. solairua Telefonoa: 943 201 379




eibar@aek.org

KANTABRIA Jatetxea

Arrate Gaina, 4
279 Postakutxa
20600 EIBAR
943 121 262
943 127 334



*Edozein
ospakizuretarako
aukera*



www.kantabriajatetxea.com

EZKONTZAK
BATAIOAK
JAUNARTZEAK

ARRATEKO SANTUTE-
GIAREN ondoan
aurkitzen gara

Ezkontzak, bataioak, jaunartzeak,
zilarrezko ezkontzak, urrezko ezkontzak,
karta, enpresa bazkariak...

RESTAURANTE KANTABRIA
KANTABRIA.JATETXEA





ARGITARATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartea
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekararen E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe,

S. Hernandez eta E. Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA:

Silbia Hernandez

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

8.050 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN: 1132 - 1679

(*...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen
aldizkarian adierazitako esanen
eta iritzien erantzunkizunik)

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskeraz

ET-ET-ET.- Ezetz esateko edo zerbait debekatzeko erabiltzen den onomatopeia. Nahi beste luzatu leike. *"Et-et-et!, nik ez dot holakorik esan!". "Et-et-et-et-et-et! hori ez dok holan!".*

ETA BI.- Adjetiboeri eranstean zaien lokuzioa indarra emateko. *"Zuk diñozun gizona da, ez gaiztua, gaiztua eta bi".*

ESKUTITZAK

— OHARRA —

Atal honetan edonork idatzi dezake, baina gutunak kaleratzeko orduan gutxieneko baldintza batzuk betetzea ezinbestekoa da. Gutun guztiak sinatuta jaso beharko ditugu, egilearen izen-abi-zenekin. Horrez gain, nortasun agiriaren zenbakia derrigorrezkoa zaigu. Neurriari dagokionez, ez da 20 edo 25 lerrotik gorako testurik kaleratuko. Luzera hori gainditzen duten testuak mozteko eskubidea izango dugu, hori beharrezkoa dela ikusiz gero. Tonuari dagokionez, berriz, ez da testu iraingarri onartuko eta aldizkariak ez du bere gain hartuko bertan kaleratzen diren iritzien gaineko erantzunkizunik.

Aipatutako baldintzok bete ezean, erredakzioak gutuna ez kaleratzea erabaki lezake. Bestalde, kartak erredakziora heldu ahal jaso eta orden horretan kaleratuko ditugu. Gutunak korreoz bidali daitezke (Urkizu, 11 - solairuartea), edo e-mailez: erredakzioa@etakitto.com

ERREDAKZIOA

asteko HEMEROTEKA esaldiak

"Enpresak euliak balira moduan eroriko dira. Aurreko mendeetako ereduarekin jarraitzen dute eta gaur egungo mundu globalizatuan produzitzearekin ez da nahikoa, beste edonon hori askoz merkeago egiten baitute. Herri aurreratuak pentsatzeari ekin behar diote eta hori ez da lortzen batzuk agindu eta besteak obeditzearekin; oso gizarte pasiboa dugu"
(Koldo Saratzaga, enpresa antolakuntzan aditua)

"Gripe berriak ospitaletan gainezka egingo du, ez txertorik ez inmunitaterik ez ditugulako. Txarrenerako prestatuta egon beharra dugu, onena gertatuko delakoan sinestuta. Kutsatuen tasa ez litzateke inoiz %30etik pasatu behar; ea %10etik behera eusten diogun. Dena dela, oheak beharko dira eta, ondorioz, larriak ez diren hainbat operazio kirurgiko atzeratu"
(Antoni Trilla, Bartzelonako Clinic-eko epidemiologoa)



EIBARKO
UDALA



GIPUZKOAKO
FORU
ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDETZA)



Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria

Udia zelan? Erregular!

Azken urtiotako martxari jarraituta, uda lasaia izan dogula esan geinke, ez baita izan aparteko bihar edo ezustekorik. Uztailla amaieran oindiok be jende morduia eguan herrixan, eta horren lekuko Eibar Merkataritza Gune Irekixaren eskutik antolatutako Udako Factoring edo merkealdixen azoka berezixak eukittako arrakasta haundixa: 35 dendarik etara zittuen Toribio Etxebarria kalera euren produktuak eta, gehixenek esandakuaren arabera, “iaz bezain beste edo gehixago” saltzia lortu eben julixuaren 23an eta 24an egindako azokan. Gauzak holan, urte osuan dannon ahotan ibillittako krisixaren eragiñik ez dabe somatu.

Udalaren biharrari ebaluaziñua

Julixua agurtu aurretik be, Udalak herritarren artian banatutako galdetegittik etaratako baloraziñuak ezagutzera emon zittuen. Udalaren biharra eta gestiñuaren inguruan galdeztian, jendiak onduen balorautakuen artian eskillara mekanikuak dagoz eta, keja gehixenak, barriz, obra guztiak batera egitteko joeraren gaiñekuak izan dira. Errebal merkatu plazia botatzia, aparkatzeko toki gitxi izatia eta trafiko haundixa eukitzia txarkixen baloratzan



Txaltxa-Zelaiako parkian lurzorua jasotzen dihardue. / SILBIA HERNANDEZ

diran puntuen zerrendia osatzera pasatzen diran beste kontuak dira.

Obra txikixak

Eta obrak aittatuta, urteroko moduan hainbat obra egitteko aprobetxau dabe abuztua aurtan be. Hori bai, beste urte batzuetan baiño obra txikixaguak

izan dira, baiña tokixan tokixaren arabera eragiña ez da izan horren txikixa: deigarrixenetakuen artian, batez be dagan tokixarengaittik, Txaltxa-Zelaiako parkian lurra barriztatzeko egitten diharduenak dagoz. Biharrak dirala eta, jubilauen gaiñeko terrazia ezin leike erabili eta oindiok be lurzorua jasotzen dihardue. Horrekin batera herriko hainbat kale asfaltau eta pinttau dittue, Ipurua kiroldegixak be fatxadia konpontzen hasteko aprobetxau dittu honek egunak, Unbeko instalaziñuetan be mejora batzuk egitten jardun dabe eta, umiak oporretan daguazela aprobetxautu, herriko hainbat ikastetxetan konponketa batzuk egitteko erabilli dittue oporrak: Urkin 60.000 euro erabilli dira leiho barrixak ipintzeko eta beste 30.000 instalaziño elektrikua barriztatzeko. Amaña,

Urkizu eta San Andres ikastetxetako elektrizidade sistemia barriztatzeko 23.500 euro, 15.700 euro eta 30.000 euro erabiliko dira, hurrenez hurren. Eta Federico Mayo hurrenkolarara sartzeko eskillarak konpontzen 25.200 euro erabiliko dira. Ikastetxiak ez eze, herriko parkiak konpontzeko eta presatzeko aprobetxau dabe abuztua: Egigurentarrenen kalekua konpondu dabe eta Urki Kurutzekua kalia barrixa preparau dabe. Ardantzan eta San Kristobalen egindako biharrekin beteko dabe herriko beste parkietan jarraipena izango daben proiektuaren lehelengo zatixa.

Ikasturte barrixak dakarrena

Edozelan be, datozen astiotan be obra barrixak hastia aurreikusitta dago. Bestiak beste, Ipuruako kanpoko igerilekua erabiltzeko sasoia amaitziarekin batera, azken urtiotan behiñ eta barriz eskatutako konponketak hasiko dittue, eguzkixa hartzen egoteko gunia haunditza helburu dakela. Sautsiko biala, Sansaburuko frontoia eta beste hainbat ikasturte barrixak ekarriko deskuzen lanetako batzuk baiño ez dira izango.

Agur Untzaga ziniari

Udako urteroko zitetako bat Untzagan egindako proiektiñuak osatzen dabe. Egoibarra Zineklubak emondako kopuruen arabera, aurtengo emanaldixetan sekula baiño jende gehixago alkartzia lortu dabe. Lau pelikula emon dittue eta, danera, 639 ikusle alkartzia lortu dabe. Marka guztiak hautsi zittuan emanaldixa abuztuaren 4an emondako ‘el niño del pijama de rayas’ pelikuliarena izan zan. Gaba horretan 260 lagun batu ziran Untzagan. Arrakastaren arrazoietako bat, pisuzkua gaiñera, emanaldi egunetan egindako eguraldi ona izan leike, programautako pelikulak euki



Uztaillaren bigarren hamabostaldixan Matsarixa eta beste kale batzuk asfaltau eben. / EKHI BELAR

leikien erakargarritasun maillarekin batera. Horri, azken urtortan kalidadia hobetzeko sartutako barritasunak gehitzen badezagu, ez da harritzekua jendia- ren erantzuna horren ona izatia.

Baiña dana ez da izan positibua ziniaren gaiñian berba egiteko orduan. Azken hillebetortan behiñ eta barriz entzuten ziran zurrumurruak egixa billakatu dira uda honetan eta Untzagak bere atiak itxi zittuan abuztua baiño zeozer lehenago. Denzel Washington eta John Travolta protagonista dittuan 'Asalto al tren Pelham 1, 2, 3' izan zan eta astero-astero zinemara juateko ohituriari eutsi detsenekin batera, zine aretuari azken agurra emotera gerturatutako beste hainbat gehitu jakozen.



Kanpoko igerilekuan eguzkiza hartzeko tokixa haundituko dabe. / SILBIA HERNANDEZ

Gauzak holan, ikasturte barrixa hastiar gagozen honetan Coliseon zine komertziala eskintzen hasteko aukerak azertzen hasi dira Udalian. Emanaldi egunak eta ordutegixak zehazteke bada-

goz be, badi-rudi Coliseoak hartuko dabela Untzagaren itxierak lagatako hutsunia betetzeko arduria.

Alkatiak, txandaka



Urteroko martxari jarraituta, Miguel de los Toyos alkatiak oporrak hartzeko ordezeko alkatiak egon dira alkatetzan: lehelengo txandia, uztaillaren 21etik 30era, Maria Jose Telleriak bete eban. Hurrengo txandia, barriz, Eneko Anduezak bete eban (uztaillaren 31tik abuztuaren 9ra) eta abuztuaren 10etik 16ra Nerea Alustiza izan zan ordezeko alkatiak. Bere txandia amaitzian, atzera be Eneko Anduezak bete eban De

los Toyosen tokixa, abuztuaren 17tik 23ra. Azken txandia, barriz, oindiok be martxan dago eta Arcadio Benítezek dihardu betetzen abuztuaren 24az geroztik. Bera da ordezeko alkatiak domekara arte.

Lasaittasuna nagusi

Jose Miguel Calle Udaltzaiñen buruak abuztuak gero eta lasaixaguak izaten diharduela pentsatzen dau. Alde batetik beste urte batzuetan baiño obra txikixaguak izatian ez da aparteko arazorik sortu: "Gehixen jota trafikuan zeozer igerri detsagu momentu konkreto batzuetan eta, bestela, lurra margotu ahal izateko-eta, aparkatzeko toki batzuk libre laga bihar izan dira, baiña bestela, ez da aparteko obrarik hasi. Eta enbarazu gehixen egitten dabenak lehenagotik martxan eguazen obrak dira, hain zuzen be Ardantzako tren geltokixan martxan daguazanak, baiña horrek lehenagotik datozen biharrak dira".

Bestela, lapurreta eta hola-ko kontuak ez dira bereziki ugaritzen uda aillegatzian. Izan be, azken urtortako joerari jarraituta, herrixa ixa hutsik egotiarensensaziñua eukitta be, badi-rudi ez dala oin dala urte batzuk bezain beste jende kanpora juaten. Halanda be, urtian zihar emoten diran arazo beretsuak emon dira uda honetan be: giltzak ahaztuta lagatzia, bakarrik bizi diran lagunak zeozertarako laguntasuna eskatzia...



Untzagako ziniak uztaillan itxi zittuan atiak.

MAITANE jatetxea
TIRO eremuan
Terraza
Doaneko parking pribatua
Bista ederrak jatetxetik
Arrate balle, 5 EIBAR
Tfnoa. 943 208 859

KILT
ENGLISH CLASSES
Philip Wylie
Ingeles Irakaslea
Julian Etxeberria 8, behea
Tfnoa: 943 20 81 21

a u t u a n

ALOKAIRURAKO AUKERA BERRIAK

Uztaila amaieran Mari Paz Larrunbide Eusko Jaurlaritzako etxebizitza sailburuordeak Eibarko Udalera egindako bisitan azaldutakoaren arabera, Egazelai inguruan jasotzea aurreikusita dauden etxebizitzetan alokairurako erreztasun bereziak martxan ipini litezke: Babes Ofizialeko Etxebizitza oso txikiak egiteko aukera aztertzen dihardutela azaldu zuen Larrunbidek, 25 eta 60 metro bitartekoak eta batez ere gazteengan pentsatuta egindakoak izan ohi dira. Gazteek hilean 250 euro inguru ordainduko lukete eta gehien jota bost urte eman dezakete bertan, beste gazte batzuei tokia egiteko.

AMAÑA-OTAOLA PASABIDEA


Udalak aurreikusitako proiektuetako batek Amaña eta Otaola pasabide berri baten bitartez lotuko lituzke, baina orain proiektu hori Mendiguren eta Zarrua enpresak bete zuen tokiari emango zaion erabilerak baldintzatuko lukeela adierazi du Udalak. Izan ere, proiektuarekin aurrera egiteko asmoari eusten diotela adierazi arren, hutsik geratu den lurzoruan zer egingo den zain daude oraingoz.

BABESIUTAKO ETXEBIZITZEN ZOZKETA

Datorren urtearen hasierarako herrian Babes Ofizialeko Etxebizitzaren promozio berrietarako zozketa egitea aurreikusi dute Udalean. Lehenik eta behin, Etxebiden izena emanda dauden datuak gaurkotzeari ekingo diote eta, behin hori eginda, aurreratuen dauden proiektuen zozketa egingo lukete (Asola Igartza, Jardina eta Egazelai).

Bizilagun onak izateko kanpaina

EIBARKO 951 ATARIK KARTEL BATZUK DITUZTE, ETA 'ATARI SOLIDARIOAK' IZATEA eskatzen da bertan. Guzti hau Gurutze Gorriaren kanpaina bat da, eta erakunde honen errekurtsoak herritarrengana hurbiltzea da helburua. Horre-



la, bizilagunen laguntzarekin, sor daitezkeen arazoak konpontzea nahi da Gurutze Gorriarekin kontaktuan jarriz edo bakoitzak dituen baliabideak erabiliz.

Kanpainak arrakasta izan du Elgoibar bezalako beste herri batzuetan. Helburu orokorra bizilagun taldeekin modu zuzenean lan egitea da akzio konkretuen bitartez eta Gurutze Gorrikoen laguntzarekin.

Kanpaina ezagutzera eman ostean bigarren fase bat ipiniko da martxan, ekintza hitzaldi eta tailerrak garatuko direlarik. Horrela, bizilagunekin izandako kontaktuaren bitartez, Gurutze Gorriak Eibar-Ermuan duen ordezkariak eskaintzen dituen zerbitzuak zeintzuk diren emango da jakitera.

Mugikorrentzako antenarekin bueltaka

UDA AURRETIK IPURUAN TELEFONO MUGIKORRENTZAT ANTENA BAKARRA IPINTZEKO ERABAKIA oraingoz ez da behin betikoa eta

hainbat aukera aztertzen dihardute, uztailaren amaieran Ipurua inguruan bizi direnek Udalari kokaleku horren kontrako 4.000 sinadura aurkeztu eta


gero. Sinadurak jasota, Eibarko Udalak hartutako erabakia berriaz aztertzeko konpromisoa hartu zuen bizilagunen aurrean. Gauzak horrela, Vodafone enpresak bere proposamena aurkeztu dio Udalari: hasieran aurreikusita zegoen tokitik 300 metrora, Galdaramiñoko maldan antena ipintzea. Enpresak egindako proposamena kontuan hartuko dutela azaldu dute Udalean, baina horrekin batera, osasunaren inguruko azterketak dioenaren zain daude, behin emaitza guztiak esku artean izatean, udal ordezkarien eta bizilagunen artean aukera onena zein izan daitekeen adosteko helburuarekin.



Aurreikusitako tokitik 300 metrora ipintzeko proposamena egin du Vodafonek.

Gizarte Larrialdi Laguntzak eskatzeko epea zabalik

UDALEKO GIZARTE ZERBITZUAK JAKINERA EMAN DUENEZ, ABUZTUAREN 31AZ GEROZTIK Gizarte Larrialdi Laguntzak eskatu daitezke 2009ko bigarren seihilekorako. Urteko lehen seihilabetealdian laguntza hau izan dutenek gutun bat jasoko dute etxean Pegoran aurkeztu beharreko dokumentazioa zein den eta epea azalduz. Laguntzarik jaso ez dutenek, bestetik, Pegoran edo Portaleko Gizarte Zerbitzuen egoitzan jaso dezakete informazioa. Eskaerak egiteko azken eguna azaroaren 13a izango da.



‘Emakumeentzako Hiri Debekatua’ lantzen

UDALEKO BERDINTASUN ZERBITZUAK ‘EMAKUMEENTZAKO HIRI DEBEKATUA’ IZENENKO MAPA lantzeari ekingo dio irailean. Bertan emakumeen segurtasun eta osotasunerako arriskuak diren gune eta puntuak zehaztuko dira, izan ere, Eva Juez Berdintasun Zerbitzuko arduradunaren berbetan, *“hiri guztietan daude arrisku guneak, batez ere gauean, eta are gehiago emakumea*

bazara”. Horrela, behin gune arriskuak zeintzuk diren zehaztuta, hauek hobetzeko eskaria egingo da.

‘Emakumeentzako Hiri Debekatua’ mapa lantzeko herritarren partaide-tza sustatu nahi da. Horretarako, herriko emakumeek (taldeka edo barkarka) tailer batzuetan parte hartu eta hirigintzari buruz duten iritzia emango dute, eurentzat arriskuak diren puntuen gainean berba egite-

ko. Bestalde, oraindik baloratzen ari diren kontu bat bada ere, mapa birtual bat sortzeko asmoa dago Interneten, bakoitzak bere etxetik puntu arriskuak zeintzuk diren eta arrazoiak azaltzeko.

Informazio gehiagorako Andretxe-ara jo (Zezenbide, 9 – 943 70 08 28) edo Berdintasun Zerbitzuak Portalean duen egoitzara (Bista Eder 10-4 – 943 70 08 40).



Maparen inguruko informazioa eskatzeko Andretxe-ara jo daiteke.



Esperientzia Eskolaren edizio berria

URRIAN HASIKO DA DEBABARRENAKO ESPERIENTZIA ESKOLAREN SEIGARREN EDIZIOA. Debegesa da ekimena koordinatzen duena eta bertan matrikula egiteko epea urriaren 26an amaituko da. Horretarako, 50 urte baino gehiago edukitzea da baldintza.

Orain arte ehundik gora pertsona ibili dira Debabarrenako Esperientzia Eskolan. 2008-2009 ikasturtean, adibi-

dez, bailarako 18 pertsonak hartu zuten parte.

Esperientzia Eskolaren helburua pertsona nagusi eta ‘aurre-nagusiak’ gizartean betebeharrak aktiboak izateko modu jarraituan hezitzea da, gizarte errealitate aldakorren eta belaunaldi aldaketaren analisitik. Gainera, gizarte-proiektuen bitartez bailaran sustatzen diren ekintzen bitartez gizartean

modu aktiboan parte-hartzea laguntzen die baliogarriak sentitzen diren pertsona nagusiei.

Izena emateko Itziar Elustondorekin kontaktuan ipini nagusiak@debegesa.com helbidera idatziz edo 943 82 01 10 telefonora deituz, edo Aitziber Indartekin aindarte@fmatia.net helbideraren edo 648 045 125 telefonoaren bitartez.

...eta kitto! Astekariak BANATZAILEAK behar ditu

Eginkizuna: ...eta kitto! Astekaria banatzea

Eskaera:

- 16 urtetik gora edukitzea
- Barixaku arratsaldeetan libre egotea
- Arduratsua izatea
- Euskera ondo jakitea ezinbestekoa

Izena emateko deitu 943 20 09 18 telefonora edo pasatu gure bulegoetatik



GATE
English School

LOREA HERNANDEZ ARIZAGA
INGELES FILOLOGIAN LIZENTZIATUA

Ibarkurutze, 4 - 1. ezk. 605 716 717

asteko

25

datua

hilabetez luzatuko diren Eibarko saihesbidearen 3. faseko beharrak hilabete honetan bertan hasiko dira. Amañako dorreen aldamenean ekingo diete lanei eta auzoa zeharkatuko duten tunelek estali bariko 70 metroko tarteko ibilbidea izango dute. Beharrek 31'3 milioi euroko aurrekontua dute.

Arrateballe babesteko sinadurak jasotzen

'ARRATEBALLE BIZIRIK'-EKOEK ARRATEBALLE BABESTEKO SINADURAK JASOKO DITUZTE ARRATE EGUNEAN. Horretarako, mozio dokumentu bat landu dute eta ados dagoenak bere datuekin batera sinadura jarri ahal izango du bertan.

Mozio dokumentuan azaltzen denez, Eibarko Udalari eta Teknikerri Arrateballen egiten ari diren obren gaineko kezka helarazten zaie: *"Ez da onargarria obra hauek egiteko 'behin-behineko' lizentzia eman izana, bistan baitago egin den lur mugimendu ikaragarriak sorturiko kalteak ez duela bueltarik"*. Bestalde, onartutako Plan Partzialak hamaika eta hamairu garaierako eraikinak egitea aurreikusten duela duela salatzen dute.

Dokumentuan aipatzen da, baita ere, Teknikerrek publikoki esan duela 2015. urterako



Arrateko jaiak aprobetxatuko dituzte Arrateballe Bizirik taldekoek sinadurak jasotzeko.

Arrateballen lantegi gehiago ezartzeko 310.000m2 urbanizatzeko asmoa daukela, eta horrek Maltzagarraino eraikitzea suposatuko lukeela:

"Ezin ahaztu, gainera, Udal ordenamenduaren arabera Teknikerrek badituela alternatibak: halaber Matsaria I eta Ibur-Erreka".

Lantegi Eskolakoen proiektu berria

EIBARKO LANTEGI ESKOLAK BERE 8. PROIEKTUARI EHINGO DIO: 18 eta 25 urte bitarteko 30 bat gaztek proiektuan parte hartu ahal izateko behar duten formakuntza jasotzen dihardute egunotan. Proiektua garrantzitsua eta maila handikoa dela azaldu du Iñaki Etxaniz Lantegi Eskolako ardura-dunak: *"Gazteleku berria goitik behera prestatu beharko dute eta urtebete emango dute horretan. Izan ere, aurtengo urrian hasi eta datorren urtearen amaierarekin batera beharrak amaitutzat ematea espero da. Lokla hutsik dago eta hor-*

mak jasotzetik hasita, beharrezkoak diren moldaketa eta instalakuntza guztiak egin beharko ditugu, hau da, elektrizitatea, informatikarako instalazioak, egurra, pinturak... obra osoa, alegia". Proiektua aurrera eramateko 700.000 euroko aurrekontua daukate. Gazteleku berria Muzategiko etxe berrietako solairu batean egingo da.

Lantegi Eskolakoek aurretik ere eskarmentu handia dute horrelako lanetan. Besteak beste Markeskua, Arrateko udalekua zein eskolaren egoitza bera eskolako ikasleek egindakoak dira.



Muzategiko etxe berrietan, azpiko lokaletan, joango da Gazteleku berria. / EKHI BELAR



MUGICA
ITURGINTZA

AIRE EGOKITUA, ITURGINTZA,
GASAREN INSTALAZIOA, KALEFAKZIOA,
PETROLIO-PRODUKTUAK, BAINUEN
ERREFORMAK ETA ABAR...

HANSROHE KANILEN BANATZAILEA
ZORU ERRADIATZAILEA
EGUZKI-ENERGIA



San Juan, 15

Tel. 943 20 10 30 - Faxa. 943 20 72 24

ITURRI

ARDOAK

ETXERA ERAMATEN DUGU

Eibarko Merkatu Plaza - Rialto

Tel. 943 12 05 87

TERRAZA HANDIA DANTZARAKO ETA KOKTELETARAKO



2 suite jakuzziarekin
4 gela hidromasajearekin
Helbarrituentzat egokitutako gela

WI-FIA doan eraikuntza osoan

250 lagunentzako aretoa
Era guztietako ospakizunak

Gela bikoitza (denboraldi ertaina): 60€
Eguneko menua: 20€
Karta: 36€



Krabelin


HOTELA-JATETXEA

Tel: 943 202 727 - Faxe: 943 208 991

Arrate auzoa, z/g
20600 EIBAR (Gipuzkoa)



**ESKAINNTZA ASTEBURU
ZORIONTSUA**
2 gau, 2 afari eta
2 gosarirekin
2 pertsonentzat
150 € + %7 BEZ



Zelan ikusten dozu plastikozko poltsen inguruko neurrixak?



TERESA MARTÍNEZ
69 urte
etxeoandria

Ez dago txarto plastikozko poltsak ordaintzeko neurri hori, izan be, poltsa gehixegi erabiltzen dira eta zakarrontzixak gaiñezka egoten dira. Nik karrua erabili dot beti, ez bada arraiña edo halakorik eruateko gitxienez. Neretako ez da bape ezerosua eta ez dakat iñungo arazorik.



FERNANDO PINHEIRO
21 urte
bihargiña

Neurrixa ondo ikusten dot, baiña nik ez dot egitten. Lantzian behiñ etortzen naiz erosketak egittera; holan, ez naiz arduratzen karrua hartiaz eta ezer. Begittantzen jata, gitxi eruatzen dabela praktika-ra. Denda batzuetan garesti kobratzen dittue poltsak eta halandabe jendiak erosi egitten dittu.


IÑAKI AZPITARTE
40 urte
osteopata

Ondo ikusten dot plastikozko poltsak kentzia. Argi dago kontsumo haundixa egitten dogula eta kutsadura haundixa sortzen dala. Horren aurkako neurri danak ondo dagoz, gitxi izan arren. Norberak bere aldetik ipiñi biharko leuke zeozer eta ez administraziñuak esaten dabinari itxoin.



MILA PARTIDO
42 urte
etxeoandria

Ondo ikusten dot. Karruarekin ibiltzen naiz oiñ eta ez da ezerosua neretako, baiña oiñ arte karruaren kontrakua izan naiz... zer egingo detsagu. Halanda be, nahiz eta aitzakixa ekologikua erabili, negoziño kutsua be hartzen detsat, beste poltsa batzuk eroatera bihartzen gaituelako.



OPTICA
OPTICA OPTICA

Ondo mitzun habete biltzerako

Amplifon-ek, entzumen-konponbideetako munduko liderrak, honakoa eskaintzen dizu:

- Entzumen-azterketa doan
- Probatu audifonok doan 30 egunez
- %20ko deskontua edozein audifono eroasterakoan
- Gainera, erabiltzailer izanda, zure audifonoren azterketa doan egin eta pila pakete bat oparitutako dirugu

OPTICA BEITU - JULIAN ETXEBERRIA, 13
20600 EIBAR - 943 20 09 30
(Biltzei buruz telefonoa Nizarteko diru)

Link idiomas
Member of Cambridge ESOL Centre ES438

**INGELES
FRANTSES
ALEMANA**

UME, GAZTE ETA HELDUENTZAT
TALDE MUGATUAK
BAKOITZARI EGOKITUA
ERREKUPERAZIOAK, ESKOLARAKO LAGUNTZA
CAMBRIDGE AZTERKETETARAKO PRESTAKETA.
MAILA GUZTIAK

Juan Gisasola, 5 (EIBAR) Telefonoa: 943 20 39 59



Jaixetan ez eze... urte osuan Arraten

Arrate eguna benetan berezixa izaten da eibartar gehixenendako eta asko dira, bestela be, urtian zihar ahal daben guztietan Arratera eskapadaxua egittera animatzen diranak. Halanda be, batzurendako jai-eguna edo aisialdixa pasatzeko tokixa baiño askoz gehixago da Arrate. Asko ez badira be, urte osua bertan emoten dabenak bada goz eta eurekin berbetan jardun dogu, gainian dakagun ospakizunetik aparte zelako bizimodua daroiaten jakin nahixan.

Oin momentuan hiru taberna-jatetxe dagoz zabalik Arrate gainian: Kantabria, Krabelin eta Maitane jatetxia (tiro-pitxoia). Krabelin, jatetxia ez eze, hotela be bada. Mireia Alonsok eta senarrak 8 urte daroiate Krabeliñen. Aurretik ostalaritza munduan biharrian jardundakuak, sasoi batian Arrateko hostala hotel bihurtu eben eta gaur egunian martxa betian segitzen dabe, Arraten bazkaldu, afaldu edo beste barik zeozer hartzen dabeneri horretarako aukeria emotiaz gain, lotarako gelak be eskintzen. Hotelaren funtzionatzeko modua famelixa girokua da, Mireiak azaldu deskun moduan: “Zabaldu genduanetik hamen bizi gara. Etorri giñanian alabia txikixa zan eta es-

kolara juateko autobusa zekan, 16 urtera arte horretarako aukeria emoten deskue eta, behiñ adin hori pasauta, autobusa erabiltzeko aukeria aprobetxatzen dau, bestiok egin geinkian moduan”.

Kantabriako alabia dan Loreak, barriz, bestelako esperientzia bizi eban bere sasoiari: “Nere kasuan ama etortzen jatan billa, berak eruan eta ekartzen ninduan eskolara, partikularretara... bihar zan tokixetara. Parrandan geratzen banintzan be, goizaldian billa etortzen jatazen eta, bestela, lagunen baten etxian edo famelixako baten batekin egitten neban lo, beste aukerarik ez eguan. Gidatzeko karneta etartzeko adiñera aillegatzian, hori izan zan egin neban lehelengo gauzia!”.

Paraje ezinhobia

Aurtengo Arratiak pasauta, urtebete egingo dau Maitanek Arraten: “Neretako hauxe zoragarrixa da, pentsau, Irunetik nator ni, asfaltoz inguratuta bizi nintzan oin dala gitxira arte, eta hamengo paisajia, bistak... ikaragarriko kanbixua izan da neretako. Jatetxia zabaltzera animau aurretik tokixa ezagutzera etorri nintzan eta biharrerako aukera ona begittandu jatan. Urtebete daroiat eta ez jata damutzen aurrera egitteko erabagixa hartu izana”.

Arrate toki txikixa izanda be, bertako jatetxiak ez dabe pentsatzen batak bestiari konpetentzia egitten detsenik. Guztiz kontrakua pasatzen dala diñue: “Jendiak eskertzen dau toki batera baiño gehixagotara juate-

ko aukeria, azken batian txikiteo modukua egitteko modua dake holan. Eta batian bazkari-
xa egitten badabe, ba bestieta-
ra kafia hartzera edo trago bat
edatera juaten dira”.

Ezkontza gitxiago

Sasoi batian ixa derrigor-
zkoa izaten zan eibartarra izanda
Arraten ezkontzia, baiña atzian
geratu dira horretarako egun
aproposa billatzeko eguazten
zailtasunak. Martitzenian Arra-
teko elizan abade 14 urte bete-
ko dittuan Sabin Azkuek azaldu
deskunez, “gaur egunian ez da
horrenbeste jende ezkontzen,
gero eta gitxiago dira Arraten
ezkontzen diranak. Goguan da-
kat lehelengo urtietan 110 bat
ezkontza ospatzen genduazela
urtian, baiña gaur egunian 30
baten bueltan ibiltzen gara,
maiatza aldiari hasi eta urrira bi-
ttartian izaten dira gehixenak”.

Eta Arraten ezkontza be, as-
kok nahixago izaten dabe baz-
karixa edo afarixa beste toki ba-
tuetan ospatzia. Kantabriakuak
aspalditik igerri detse kanbixua-

ri: “Gaur egunian ezkontza gi-
txiago izaten da hemen, eta le-
henguekin konparatzen hasi ez-
kero, gaiñera, diferentia dira.
Boda txixaguak dira. Hori bai,
zillarrezko ezteiak eta urrezkuak
ospatzera gero eta jende gehi-
xago etortzen jaku”.

Eguraldixaren menpe

Eguraldi onak erakarritta,
jende gehixena asteburuetan
ibiltzen dala diñue tabernari-
xak, baiña klientela horretan be
aldaketia izan ei da: “Lehena-
gokuak mendi bueltia egitten
eben eta saldia eta txorizua
hartzera etortzen ziran, baiña
gaur egunian denetarik etor-
tzen jaku: gaztiak kafia hartze-
ra, umiekin zelaira jolasera eto-
rrittakuak, zeozer hartzeko al-
kartutako famelixak...”.

Kanbixatzen ez dana, egu-
raldixaren menpe egoteko kon-
tu hori da: “Arraten eguraldixak
zeresan haundixa daka, eguzkirik ez
badago hamen jai dakagu, jendia ez
da etortzen”.



Azken hillebetiotan Ahmed-ek daka bertako mantenimenduaren arduria.



Kantabriako Maite eta Loreak bizitza osua daroiate bertako jatetxian.



Sabin Azkuek 14 urte emon ditu Arraten.

Halanda be, beste kontu ba-
tzuk erakarritta be ailegatzten
da jendia Arrateraiño. Krabeli-
ñeko Mireiak esaten deskunez,
“jende asko bakarrik akordatz-
ten da Arraterekin urtian
behin, jaixak ailegatzten dira-
nian, baiña gurian urte osuan
egoten da zer egin. Oin mo-
mentuan azarorako maridaje-

jardunaldixak prestatzeko bille-
rekin gabiz, urritik aurrera ehi-
zarekin hasten gara... Bestela,
urte osuan oso jende mota dife-
rentia etortzen da gurera: en-
presetako jendia, ingeniuruak
eta sarrittan izaten dittugu, tu-
rismua egittera datozenen ar-
tian frantsesak eta katalanak
izaten dira nagusi; eta, berezi-
tasun moduan, israeldar asko
etortzen jakuz. Halako batian
hango bezero bat izan gen-
duan eta oso pozik geratu zan
tokixarekin. Badirudi hanguak
asko bidaiatzen dabela internet
bittartez eta asko konsultatzen
daben webguneren batian go-
mendatuta gagozela, beraz is-
raeldar asko ailegatzten dira
gurera”.

Lasaittasun billa

Beste helburu “erromanti-
kuagua” dakenak be badagoz.
Arratek eskintzen daben lasai-
ttasunaren aitzakixarekin, biko-
te asko asteburu pasa juaten
dira Krabeliñera, horretarako
eskintzen dittuen oferta berezi-
xak aprobetxatzen.

Arraten bizi diran guztiak bat datoz honetan: "Hamen ederto bizi gara, horretarako toki edarra da"

Arrateren izena danian eza-gutzera emoteko orduan, barriz, ezin leike ukatu Arrate Irratixak dakan pisua. Bernardo Ibarra 27 urtian dihardu Arrateko emisoratik Euskal Herrixari berba egiten. Emisoria sortu eban On Pedro Zelaiaren filosofixari eutsita, euskal giroko jendiari begira egiten dabe biharra: "Guria oso bihar bariatua eta politta da, mikrofonuarekin hasi eta publizidadia batu, alkarrizketak egin, kalera urten, garbiketeta... denetarik egiten dogu hamen. Planteamendua hasierakua da. Egixa da emisoria Arraten daguala, baiña guk Euskal Herrixari begirutzen detsagu, euskaldunendako emisoria da guria, tartian erdaldun batzuk entzuten badabe be".

Arrate Irratitik Euskal Herrira

Baiña ez da hori Arrate Irratixa berezi egiten daben ezau-garri bakarra: "Gure programaziñua sasoian sasoikora moldatzen juan gara, baiña egixa da musika arluan nahiko berezixak garala, hamen ipintzen dogun musikaren %20xa produkziño propioa dala esan geinke, geure materixala, eta

beste iñun entzuten ez diran kantak-eta hortxe sartzen dira. Gaiñera, Mexiko eta Tirol aldeko musikak be arrakasta haundixa dake gure entzulien artian. Bertso saiua eta bestelako kantaldixak grabatzen ibiltzen gara eta gure entzuliak asko eskertzen dabe hori".

Eta ez da hori eskertzen daben gauza bakarra, Arrate Irratixa oso gertuko, etxeko beste bat gehixagoren modura hartzen dabe askok eta, horregaittik, Bernardok ehundaka lagun hartu dittu emisoran, bertan da-



Mireia Alonsok Krabeliñ Hotela kudeatzen dau.



Bernardo Ibarra hasieratik dihardu Arrate Irratian lanian.

guan denporan: "Askok Arratera egindako bisitia aprobetxatzen dabe gure emisoria eta bertan gagozenak zelakuak garan ikusteko. Irratixak oindiok be badaka xarma hori, jendiak zure aurpegixa ez ikustian kuriosidade punto hori beti dago hor".

Arrate Irratiko lagunak bizi bizi ez dira Arraten bizi, baiña egun osua bertan emoten dabe eta, Bernardok gogoratzen daben moduan, "iñoiz gabaren bat edo beste hamen pasatzia tokau jaku, eh! Neguren batian bajau ezinda geratu gara, baiña zer egingo detsagu. Bestela, gaur egunian todoterrero txiki batekin nabil, problema barik".

Abadia be egunero bertan

Sasoi batian bertan bizi izan bazan be, azken aldixan eta jubilauta daguan ezkeroztik, Sabin Azkue Arrateko abadiak egunaren zatirik haundixena bertan emoten dau, eliza inguruan pasiuau: "Medikuak aginduta 10 kilometro egin bihar dittut egunian eta horrek denporia eskatzen desta. Eguraldi onarekin hamen ibiltzen naiz

eta, bestela, eliza atarixan. Goixian eliza zabaltzen dot eta gero itxi. Lehenago beti egon izan da zabalik, baiña azken urtitan elizetan lapurrak sartu dirala-eta, eliza ixteko agindua emon deskue goititik. Atia zabaltzen dogu, baiña barruko burdiñak itxitta lagatzen dittugu, badaezpada be".

Gauza jakiña da Arrate eguneko meza guztiak arrakasta haundixa izaten dabela, baiña urtian zihar be "herriko parrokitan baiño jende gehixago ibiltzen da Arraten, zapatu arratsaldetan, 18.00etan eta domeketan 12.30xetan izaten dira mezak eta eliza beteta egoten da, batez be domekakuan".

Arrate eguna poliitta begittantzen jakue daneri, baiña argi dago danendako bihar haundiko eguna izaten dala. Eta ez pentsa, ostian be bihar haundixa eukiko dabe jaixetan sortutako zabor eta beste guztiak jaso bihar dabenak. Azken hilliotan Ahmed-ek daka Arrateko mantenimientuaren arduria eta urtian zihar be jendiak gauzak lurrera botatzeko joera haundixa dakala kontau desku, "jendiak ez dittu zaborrontzixak-eta erabiltzen, dana lurrera botatzen dabe".

Hori bai, alkarrizketatu danak aho batez esan deskue "Arraten ederto bizi dala". Hala izango da ba, eurak baiño hobeto iñork ezin jakiñ-eta.



Maitanek urtebete egingo dau hamendik gitxira Tiro Pitxoian biharrian.

*Egaña, Lizaso, Lujanbio eta Peña***“EUSKAL BILERA HANDI BAT”**

1993an ipiñi zan martxan Arratietako bertso-afarixa, oin dala hamasei urte, Egaña, Lizaso, Peñagarikano eta Juan Mari Narbaiza eibartarrarekin.

17. ediziño honetan, ixa kartel bera izango dabe astelehen gabian Kantabrian batuko diran bertsozaliak. Maialen Lujanbiok Narbaizaren tokixa hartuko dau oinguan: hori izango da aldaketa bakarra.

Urte askotxo dira holako ekitaldi batek billakaerarik ez izateko. Ezin aittatu barik laga azken urtiotan, Kantabria lepo beteta, jende asko lekurik gabe geratzen dala. Antolatzailiak, bertso-afarira juatia gura dabeneri modu onenian erantzuteko ahalegiñak egiñ arren, badakixe asko txartelik gabe geratzen dirala; azken egunotan be dei bat baiño gehixago jaso dogu ...eta kitto!-n, azken orduan apuntatzia nahi ebenena edo konpromisozkuak beste batzuk, baiña eziñ izan da ezer egiñ, julo amaierarako sarrera guztiak agortuta eguzelako. Aurten, “*alkarteko bazkidiekin zuzenago jokatzeke asmoz*”, hónek aukeria izan dabe txartelak lehenago eskuratzeko eta, hauen epia amaittuta, sarrerak danon esku ipiñi ziran, ohiko tokixetan. Baita dida batian amaittu be.

“*Penia da bertso-afarira juatia nahi dabena kalia geratzia, baiña hobe holan jendia ez etortzia baiño*”. Holan pentsatzen dau iaz arte bertso-afariko gai-jar-

tzaille moduan jardun daben **RAFAEL ZUBIZARRETA** be; hori bera be, sarrera gehixaguen billa etorritta, ezer barik jua bihar izan zanian, ...eta kitto!-n bat bera be ez dalako gorde.

Zubizarreta, bestalde, desiatzen dau urtero lez bertso-afarixarekin gozatzeko. “*Mailla haundixa lortu dau eta mejoztzia zaila da; leku barik geratziak nahikua esan nahi dau horren inguruan*”. Urtetik urtera, bada kale egin barik Kantabrian izan dan “*bertsolari paria, Egañak eta Lizasok osatutakua*” eta hórrak ekartzeko ez dau zailtasun askorik nabaritu Rafaelek: “*Ondo por-*

lari diferentiak-eta ekartzen hasi ziraneko urtiak gogorzerakuan. Badago nabarmentzekua dan beste puntu bat: gaztien presentzia gero eta haundixagua da Kantabriako billerian, berak “euskal billera haundi bat” moduan definitzen daben bertso-afarixan.


Halako afari asko ikusittakua dogu Zubizarreta eta “*Arraten bezalako jendetzarik ixa iñun*” ez dabela ikusi diño. “*Ikusten da jendiak joeria hartu dabela eta afan haundixa dago bertara juateko*”. Etorrizunerako be itxaropentsu nabaritzen jake hainbeste urtetan gai-jartzaille lanetan jardundakuari: “*Urtetik urtera*

Baillara zabal bateko jendia


Sei edo zazpi urte izango dira **ASIER IBAIBARRIAGA** Arrateko bertso-afarira juaten hasi zala. Ordutik ez detsa kalerik egiñ hórru urteroko zitaorri: “*Ikusten danez, askorendako zita bihurtu dan horri. Sarrerak eskuratzia be, gero eta zaillago ei dago. Une gorenian daguala esango neuke eta lana egin biharko da hórru eusteko*”. Zubizarretaren lekukua hartu eban iaz gai-jartzaille moduan eta pozik geldittu zan, aurten errepikatzeke moduan: “*Rafaelek egindako lan guztiari aurre egin bihar netsan eta banekan beldur pixka bat. Badakizu: Ermutik nator, inguruan ezagutzen banaute be... baiña gustora geratu nintzan*”.

Gaixak ezin badittu aurreratu be, “neurrikuak” prestatzeko ahalegiña egingo dabela diño, “*batez be, protagonistak bertsolarixak izan bihar diralako*”. Bertsolarixendako euredako be “plaza garrantzitsua dalakuan” dago Ibaibarriaga: “*Ondo ezagutzen dabe eta badakixe Arraten baillara zabal bateko jendia baten dala: Etxebarri eta Markiña inguruko jende asko etortzen da, baita beste bertso-jaialdixetara juaten ez dan jendia be...*”.

Asier be bat dator bertso-afarixak euki daben billakaeria onartzian: “*Oin dala urte batzuk antolatzailiak hausnarketia egiñ eben eta belaunaldi aldaketari aurre egin bihar zetsela ikusi eben. Urte askuan etorritako Mañukortak, esaterako, tokixa laga zetsan beste batzueri eta horrek ikusentzulen arluan be hainbat aldaketa ekarri zittuan berarekin. Hori bai, Egaña eta Lizaso ekitaldiko oiñarrixa izaten jarraitu dabe*”.



Asier Ibaibarriaga, Lizasoren ondoan, azken edizioko bertso-afarian.



Rafael Zubizarretak, Aitor Alberdi eta Egañaren artean, lekukoa pasa zion iaz Ibaibarriagari.

tau dira beti gurekin; pozik datoz eta geu be pozik gagoz eurekin”. Oiñ artekuari jarraitzeko bidia be eurak emon detsela diño, bertso-

errepikatzen da Kantabria beteziarena eta, batez be, poza ematen dau gazte jendia zelan ingurau dan ikustia”.

Ikasturtea zortearekin hasteko

Martitzenean zer egin asko izango da Arraten, egun handia eibartarrondako; oporren bueltan jai giroa nagusi izaten da Arrate egunean eta ezin hobeto pasatzeko aukera izaten da ama-birjiñaren egun handia aitzakiatzat hartuta.

Eta egun hori biribila izateko aukera eskainiko du aurtengoan ere Kittonboliak. Aste Santu ostetik dihardugu antolaketa lanean, sariak jasotzen eta prestatzen. Zortea guztion esku izateko asmoarekin antolatuko dugu berriro ere Arrateko tonbola berezia. Urteroko moduan, sari asko batuko dituzuen denda eta enpresa guzti horien laguntasunari esker. Baina Kittonbolia zortea zirikatzeko tonbola baino gehiago da, ...eta kitto! Euskara Elkartearen proiektuari laguntzeko modua ere bada, Eibarren euskara bultzatzeko modua; hori bai, parte hartzen duen eibartarrak saria jasotzeko aukera asko ere badu.

Gainera, eibartarrek eskainitako laguntasunak gure egunerokotasunean egi-



ten ditugun ekitaldientan, aldizkariaren argitaratzean eta abarreak eragin zuzena izango du. Urte osoan zehar lanean jarraituko du ...eta kitto! Euskara Elkartek Eibarren euskara bultzatu eta indartu nahian, eta horrelako egunek asko laguntzen dute.

SARI UGARI ETA POTOLOAK

Betiko moduan, sariaren bat irabazteko aukera ez da txikia izango, telebistak, DVD portatilak, afariak, urdaiazpikoak, janari lotak, edertasun tratamenduak, etxeko tres-


nak, kamisetak, CDak, bizikleta, Play-Stationa, Nintendo DSa, otarrak etabar luzea. Guztira 3.000 sari baino gehiago. Hori guztia lortzeko ezinbestekoa izan dugu hainbat denda, enpresa eta elkarrekin kolaborazioa. Hurrengo orri bietan dituzue laguntasuna eskaini duten guztien zerrenda.

Beraz, martitzenean elkar ikusiko dugu la espero dugu. Goizeko 06.00ak bueltan izango gara Arraten azkeneko antolaketa lanak egiteko eta 10.00ak puntuan salduko dugu lehenengo

boletoa. Goizean goizetik sariak banatzen hastea espero dugu.

Ikasturte berria hasiko dugu guztiok egunotan, gaztetxoek eskolara hasiko dira datorren astean bertan eta nagusietako gehienak hasi gara lanean, udako oporraldia amaitu baita. Hori ezinbestekoa da, baina horri aurre egiteko jai giroa baino hobetik ez dago eta Arrateko jaiak eta Kittonboliak, besteak beste, hori dute helburu, ikasturte berria ezin hobeto hasia, ahal izanez gero, oparia jasota.

Kittonbolia



KITTOnbolia



Euskara Elkarteak

Arrate egunean, zuen ametsak errealitate bihurtu zituzten denda, enpresa eta kirol taldeak aurkezten dizkizuegu. Aukera paregabea izan zen Arrate egunean eta, euro baten truke, eibartar gutxi geratu zen sari barik. Eibartarrok eibartarrentzat egindako tonbola berezian parte hartu zenuten guztioi, eskerrik asko!!!

• Alfa



• Cadenas Iris



- Eibar Rugby Taldea
- Eibarbus
- Eibarko Txirrindulari Elkarteak
- Eibarko Udala
- El Cantón de la Avenida



- Ansa bitxitegia
- Artola jatetxea
- Askasibar
- Aspe



• Calefacciones Eibar



- Emankor taldea
- en boga ileapaindegia
- Errebal kirolak
- Eskarne jatetxea
- Eslune
- Esteban Oroz

- Astigarraga
- Astore
- Athletic Club
- Ayerbe liburudenda
- Azitain erretegia
- Azpiri saneamenduak



- Capi
- Dirdai bitxitegia
- Egaña elektrodomestikoak
- Eguren elektrodomestikoak
- Eibar Kirol Elkarteak/S.D. Eibar



- ...eta kitto!
- Euskadiko Kutxa / Caja Laboral
- Gar Men
- Goien oinetakoak
- Gratzina
- Guby mutilak
- Guby neskak
- Hodei estetika

- Baglietto
- Basik
- Benicoba
- Burbujas y más

Eskerrik asko
guztion
laguntzagatik

OSTALARITZA - VENDING

Zure zerbitzura

ostalaritza • enpresentzako •
erregistro eta gestio sistemak



urkotronik
25 urteko esperientzia





Polonia Ekeberria 14-16 • EIBAR

Tel: 943 20 51 12

Fax: 943 20 17 64

urkotronik@urkotronik.com



- Idoia Bergaretxe spa
- Ikusimakusi
- Industrias
G. Arizaga
- Industrias Mail
- Industrias Rosi
- Iris Sport
- Irritsa
- Itxesi
- Izadi loradenda
- Izane
- J.D Arrate
- Jauregui



- Jaz- Zubiaurre



- Jeronimo
- Julen argazkidenda
- Kantabria jatetxea
- Kareaga bitxitegia




- Kiñu


- Krabelin hotela
- Kros-sports
- Larramendi milar
- Laumar loradenda
- Leder
- Lide
- Mamacas
- Marian-Idoia spa
- Mega
- Mertxe gazta eta txerrikiak
- Mugika iturgintza
- Narrua
- Neure
- Orbea



- Pirritx eta Porrotx



- Pitxiak
- Publiresa
- Salaberria bitxitegia
- Solera Eibarresa



- Solera Estankoa
- Su Beroa
- Su Ta Gar
- Tress
- Tribeka



- Tribux
- Trinkete



- Tximeleta jatetxea
- Txokolate
- Ulmar
- Umea
- Urdanibia
- Urkotronik
- Valenciaga
- Yraolagoitia
- Zahor



- Zero
- Zurkulu

arrateko amaren

Irailak 7, ARRATE BEZPERIA

- 18.00.- **MEZIA** Arrateko Santutegixan eta, ondoren, **SALBEA**. Jarraixan, txupinazua eta kanpai-errepika.
- 20.00.- **ROCK KONTZERTUA** Bizardunak taldiarekin, txosnen eskutik.
- 21.00.- **BERTSO-AFARIXA**: Maialen Lujanbio, Angel M^o Peñagarikano, Andoni Egaña eta Sebastian Lizaso. Gaijartzaillia: Asier Ibaibarriaga. Kantabria jatetxian. Antolatzaillia: ...eta kitto! Euskara Elkarte.



Irailak 8, ARRATE EGUNA

- 10.00.- Azittaingo surtidoretik urten eta Arratera **IGOERIA**, Ama Birjiñaren pausuen bide zaharretik. Saldia, txorizua eta ardaa banatuko dittue Zesteroko iturrixan. Arrateko Jai Batzordiak antolatuta.
- 10.00.- **KITTONBOLIA!**
- 10.30.- **KALEJIRIA** Eibarko Usartza Txistulari taldiaren eskutik.
- 11.00.- **MEZA NAGUSIXA** Arrateko Santutegixan. Kezka dantza taldiak eta Usartza Udal Txistulari taldiak Arrateko Amaren ezpata-dantzia egingo dabe. Ondoren Arrateko Amaren **PROZESIÑUA** Usartza Txistulari taldiak, Kezka Dantza Taldiak, bertsolarixak eta agintarixak lagunduta. Arrateko Amaren ezpata-dantzia egingo dabe. Trikitilarixak: Jainaga eta Narbaiza. Bertsolarixak: Azpillaga, Meabebasterretxea eta Narbaiza.
- 12.30.- Kezka Dantza Taldiak eta Usartza Udal Txistulari Taldiak **ARRATEKO AMAREN DANTZAK** aurkeztuko dittue zelaixan: ezpata-dantzia eta makilla txikixen dantza.
- 13.30.- **TRIKITILARI ETA BERTSOLARIXEN SAIUA**.
- 14.30.- Lagunarteko **BAZKARIXA** Kantabria jatetxian.
- 17.00.- Narbaiza eta Meabebasterretxea **BERTSOLARIXEN SAIUA**.
- 17.30^{etatik} 21.00^{etara}.- 'Bete zaitetz... baina emozioz!' **ALKOHOLAREN INGURUKO KANPAIÑA** informatzaille eta hezitzaillia. Sasoia alkartiak (Osasun heziketa eta drogamenpekotasunen prebentziñorako alkartiak) alkoholemia kontrolak egingo dittu. Antolatzaillia: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietako Zuzendaritza.
- 17.30.- **DANTZA SOLTE TXAPELKETIA** 15 urtetik gorakuekiko. Gehixen jota 10 bikote onartuko dira, alde zeharretik gonbidauta.
- 19.00^{etatik} 23.00^{etara}.- **DANTZALDIXA** Drindots taldiarekin.

Irailak 13, KOFRADIXA EGUNA eta basarritar jubilaueen eguna

- 10.30.- Simón Aldazabal XIV. **ANTXITXIKETALDIXA**. Alberto Zabaleri omenaldixa. Eibarko Klub Deportibotik urten eta Arrateraiño (Orbeko bidetik).
- 11.00.- **MEZA NAGUSIXA** Gorrotxategi eta Narbaiza bertsolarixekin. Meza ostian, **AURRESKUA** Kezka Dantza taldiaren eskutik. Ondoren **PROZESIÑUA** Usartza Txistularixen Bandak lagunduta.
- 12.00.- **PELOTA PARTIDUAK**. Antolatzaillia: Eibarko Klub Deportiboa.
- 12.00.- **PAELLA LEHIAKETIA**.
- 12.30.- **HERRI KIROLAK**.
- 14.00.- **Paella lehiaketaren SARI BANAKETIA**.
- 14.30.- **JUBILAUENDAKO BAZKARIXA** Krabelin Jatetxian. Basarritar nagusixeri oparixak banatuko jakuez. Trikitilari eta bertsolarixak be parte hartuko dabe.
- 17.30.- **IDI PROBAK**.

j
a
i
x
a
k

0
9

Autobus zerbitzua



Arrate **BEZPERAN** Eibartik Arratera igotzeko autobusik ez da izango.

ARRATE EGUNEAN, Eibarrera jaisteko autobusak egongo dira goizaldeko 03.00etan, 04.00etan, 05.00etan, 06.00etan, 07.00etan eta 08.00etan.

Arratera igotzeko autobusak, berriz, Toribio Etxebarria kaletik irtengo dira 09.00etatik aurrera, bete ahala. Egun osoan gora eta behera ibiliko dira autobusak. Jaisteko azkena 21.00etan irtengo da Arratetik.

KOFRADIA EGUNEAN (hilaren 14an), jaien errepikapena dela-eta, ohiko ordutegian ibiliko dira autobusak, baina zerbitzua indartuko dute. 09.00etan, 10.00etan, 11.00etan, 13.00etan eta 18.00etan irtengo dira autobusak, Urkizuko autobus geltokitik, eta ohiko geltokietan geratuko dira.

Arrate egunaren inguruko mezak



Astlehenean (Arrate bezperan):
18.00.- Salbea, Arrateko santutegian.

Martitzenean (Arrate egunean):
09.30etan, 11.00etan (Meza nagusia Arrateko santutegian eta, ondoren, prozesioa), 13.00etan eta 18.00etan.

Kofradia Egunean (irailak 13):
11.00.- Meza nagusia Arrateko santutegian. Ondoren, prozesioa.



Txosnen egitaraua

astelehena, 7 (Arrate bezpera)
21.00etatik aurrera.- Herri-afaria.
22.30etatik aurrera.- Kontzertua: Bizarhunak eta Xarma.
Kontzertuaren ostean.- DJ eta VJ-ak (bideo-jartzaileak):
Basanabasa eta Besamotz
martitzena, 8 (Arrate Eguna)
12.00.- Elkarretaratzea: Preso eta iheslariak etxera!

Telefono jakingarriak

LARRIALDIAK

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943222222
DYA 943464622
DYA anbulantziak 943208480

OSASUN ZENTROAK

Larrialdiak 943461111 /943440633
Erdialdeko anbulategia 943032500
Torrekuako anbulategia 943032650
Mendaroko ospitala 943032800

Suhiltzaileak 112/943202328
Udaltzaingoa 092/943708424
Ertzaintza 943204080

GARRAIOAK

Untzagako taxiak 943203071
Anbulategiko taxiak 943201325
Eusko Trenbideak 902543210 / 943120546

Gizartekintzaren zerbitzuak

Bete zaitetz... baina emozioz! Alkoholaren inguruko kanpaina informatzaile eta hezitzailea. Osasun heziketa arloan eta drogomenpekotasunen prebentzioan lan egiten duen Sasoia elkarteak alkoholemia kontrolak egingo dizkie nahi dutenei. Antolatzaileak: Eibarko Udala eta Eusko Jaurlaritzako Droga Gaietarako Zuzendaritza.



Arrateko jaietako bezpera gauean burua astindu eta gorputza mugitzeko aukera izaten da urtero. Txosnek kontzertua antolatzen dute eta kanpa jendez gainezka jartzen da musikaz egarri. Aurten 'Bizardunak' eta 'Xarma' taldeei tokatuko zaie egarri hori asetzera.




Folka eta rock alternatiboa *Arraten*

Musika talde eta musikarien artean badago euren estiloa ez definitzeko joera. Musika motak gero eta ugariagoak dira, baina batzuk etiketatik alde egiteko, besteak estilo hori non kokatu ez jakiteagaitik, edo dena delakoa, gero eta talde gutxiagok definitzen du bere burua mota bateko edo besteko musikari bezala. 'Bizardunak' taldeak bai, definitzen du bere burua. 'Euskal folk erradikala' lantzen dutela diote. Taburik gabe. Euren izaera hori dela diote, horregatik euren buruari ezartzen dioten etiketa. *"Egiten duzuna benetazkoa bada defendatu beharra dago, eta guk gure izaera aldarrikatzen dugu, 'euskal folk erradikala'"*.

'Euskal folk erradikala', 'The Pogues' eta 'The Dubliners' bezalako taldeetatik edaten duen 'Euskal folk erradikala' izango da Arrateko zelaian irailaren 7an, Arrate Egunaren bezperan, 20.00etan entzuko dena. 'The Poguesen' kutsu punka, 'The Dublinersen' folka eta euren izaera nafarra nahastuz, 'Bizardunak' da lortzen den emaitza.

'Bizardunak' Iruña aldeko rock taldeetan (Mermaid, Basque Country



Pharaons, Green Manalishi...) ibilitako musikariek (Eneko Paez, Iñigo Cabezafuego, Jose Mari 1'4, Saturnino Lekunberri Star-



light, Artola, Txus Brainloster, Remin Auskalo, Jose Miguel Itzala eta Anderete) osatzen badute ere, folka da taldearen oinarria. *"Egia esan, ez dugu hainbesteko aldakatarik igarri, folka eta rocka bera oso hurbil ibili direlako askotan, baina musikari sentitu nahi genuen, osorik. Eta, horretarako, gozamen hutsa da"*. Folk parrandazalea, baina era berean

lasaia eta barrenekoa, beti ere mezuz betea. Izan ere, mota askotariko gaiak jorratzen dituzte (drogak, gudak, pasarte historikoak, sexua, traidoreak, elizgizonak, poliziak, politiko profesionalak, Marx, koldarrak...). *"Berkak zerbaiterako egiten ditugu, ez tontakeriez aritzeko"*.



Berriz aldeko rocka

'Bizardunak' nafarrekin batera Berrizko 'Xarma' taldea arituko da astelehenean. Pop eta punk kutsua duen rock alternatiboa lantzen du laukote bizkaitarrak, eta Arraten bilduko direnen belarrien gozamenerako ikuskizuna eskainiko dute.

Alemanian bira egin zuten joan den Aste Santuan, Berlinen bi eta Hamburgon kontzertu bat eskainiz. Horrela, talde gaztea bada ere, kalitate handia duela antzematen da.

'Bizardunak' eta 'Xarma'-ren ostean DJ eta VJ-en txanda iritsiko da. 'Basanabasa' eta 'Besamotz'-ek musikaz girotuko dute Arrateko zelaia bertan bildutakoen gorputzak nahikoa dela esan arte.

Drindots Arrate Egunean

Arrate Egun bezperako gauean folka nagusi izango bada, Arrate Egunean dantzarako eta abesteko aukera egongo da 19.00-etatik 23.00etara Drindotsen eskutik. Giro ona sortzeagatik ezaguna da talde hau Euskal Herri osoan, eta Eibarko jendeak ederki daki hori, Sanjuanetan zein Arrateko jaietan herrian aritu direlako.




Azpeitiako rallyaren podium osoa eibartarrentzat

UZTAILEAN AZPEITIAN JOKATUTAKO KLASIKOEN RALLYAN, Roland Holke eta Jorge Beorlegik gidatutako 1975eko Seat 127ak irabazi zuten eta Escuderia Eibarko beste bi taldekidek osatu zuten probako podiuma: Antonio Cancelo eta Antonio Verguizas bigarrenak izan ziren 1978ko Seat 124arekin eta Anton eta

Iban Beroiz aita-semeak 3. postuan sailkatu ziren 1979ko Ford Fiesta 1.3arekin.

Proba zapatuan eta domekan jokatu zen, Gipuzkoako hainbat errepidetatik bederlatzi tramo kronometratu eginez eta 400 kilometroko ibilbidea osatuz. Hilabete honen amaierako Durangoko rallya da Eibarko gidarien hurrengo helburua.




Maila bikainean amaitu zuten denboraldia Escuderia Eibarko ordezkariak.



Mutrikuko waterpolo torneoa Gironarentzat

URBAT-URKOTRONIKEKO TALDEAK IKASGAI ASKO ATERA zituen uztailean Mutrikun jokaturako waterpolo torneotik. Zazpi taldeetatik, eibartarrak sailkapeneko azkenak izan ziren, baina hain maila altuko aurkariekin lehia-tzea onuragarria da beti. Gironak 16 puntu eskuratu zituen, Master Askartzak 12, CD Bilbako 11, Leioak 10, Pontevedrak

6, Hernanik bi eta Eibarko taldeak puntu bakarra. Eibartarrak launa berdindu zuten Hernanirekin eta, beste partiduak galdu arren (4-3 Pontevedraren aurka, 5-2 Master Askartzarekin, 6-4 Gironarekin, 2-0 CD Bilbaoren aurka eta, neurketa kaskarreanean, 7-1 Leioarekin), maila ona eman zuten hainbatetan.



KATU

KALE

TABERNA

BIDEBARRIETA, 1

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea, eskuma

FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- └ Tanatorioa eta Errausketa labea Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- └ Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- └ Koroak - Eskelak - Urteurrenoko eskelak
- └ Euskal Herri osoko ospitaletan hartzen zaitugu
- └ Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^a Jesus Blanco

Bittor Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15

Irudi

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29



Nazional mailako taldeak Trapagan debutatu zuten

ABUZTUAREN 29-AN JOKATU ZUEN ARRATEREN BIGARREN TALDEAK denboraldiko lehen partidu ofiziala. Euskadiko Kopako neurketan, Arratek Aparcabisa Trapagaran taldearen zelaian jokatu zuten eta 29-33 irabazi, atsedendira eibartarren aldeko 15-19ko emaitzarekin joan eta gero. Tamás Szabo izan zen Arrateren goleatzaile nagusia, 7 golekin; Andoni Bernalek sei lortu zituen; Jon Alzagak lau; Ander Badiolak, Iker Romerok eta Unai Ibaibarriagak hiruna gol; eta Ibai Lazkanok eta Mikel Larrañagak bina. Inunziagak eta Lukek ere jokatu zuten.

Arratek jokalari berriak egokitzen jarraitzen du

DENBORALDIA HASTEKO ASTEBETE PASATXO GERATZEN DENEAN, Arratek galdu egin zuen herenegun Tolosan Asobal Ligako lehenengo jardunaldian aurkari izango duen Naturhouse Logroñorekin. Talde biek ez zituzten euren karta guztiak erakutsi, baina 2. zatia- ren hasieran ikusi ahal izan zen Arratek seguruenik denboraldi

hasieran aterako duen zazpikote titularra. Tokic eta Harsany jokalari berriak izan ziren goleatzaile nagusiak, sei golekin.

Aurretik, beste hiru partidu jokatu ditu Arratek aurrendenboraldian: debuta Elgoibarren egin zuten Alcobendasen aurka, 23na berdinduz; eta gero, Egia-ko torneoan, Valladoliden aurka erori eta gero, 3. posturako ga-

raipen garrantzitsua eskuratu zuten eibartarrek, Reyno de Navarrari (lehenengo Portland San Antonio) 35-31 irabaziz.

Gaur bertan partidua jokatu du Huescan, bertako Oberagón Huescaren aurka; eta aurrendenboraldiko azken neurketan Barakaldon izango du, hilaren 9an.



Berrios hegaleko jokalariek Arraterekin jokatu du denboraldi honetan ere.

Talde berria

Diru arazoak bultzatuta, taldea guztiz berritu dute Arrateko zuzendaritza taldeko partaideek. Horrela, Jurkiewicz eta Vargas (Reyno de Navarra); Rudovic, Stefanovic eta Kobin (Oktavio); Malumbres (Cai Aragon), Arrieta (Naturhouse), Ivo Díaz (Hungaria) eta Salaberriak taldea laga dute. Euren ordez, Arratek honakoak fitxatu ditu: Voncina atezaina; Redei, Tokic, Harsanyi eta Obrvan 1. lerrorako; eta Sergio Cid eta Törö 2.erako.

Eibar KEko nesken taldeak Superligan jokatu du

AZKENEAN AHALEGIN BEREZIA EGIN ETA ESTATUKO 24 TALDE ONENEN artean izango da Eibar KEko nesken talde nagusia denboraldi berrian. Athletic, Real eta Lagunak-ekin batera, Luis Ormaetxeak eta Jorge Velosok zuzentzen duten taldea Euskal Herriko laugarrena izango da. Aipatutako lau taldeekin batera, Transportes Alcaine, Real Valladolid, Oviedo Moderno eta

Las Palmas taldeek osatuko dute lehenengo multzoa. Oso maila altuan jardun beharko du aurten taldeak, baina horretarako hainbat fitxaketa egin ditu Alex Aranzabalek gidatzen duen zuzendaritzak. Lagunarteko azken partiduan, iaz euren multzoko liderra izan zen Oiartzuni irabazi zieten eibartarrek haien zelaian (0-3), oso itxura ona emanez gainera.



EGSk irabazi zuen foball-7ko torneo

URTERO GURE HERRIKO KIROL PATRONATOAK, Elgoibarkoarekin elkarlanean, antolatzen duen foball-7ko torneoan, aurten EGS taldea nagusitu da. Uztailaren 17an jokaturako fina-

lean, Ladakh baino gehiago izan zen; eta 3. eta 4. postuak erabakitzeke neurketan, Smackdown-ek Raketxeri nagusitu zitzaion. Hamazazpi taldek hartu zuten parte torneo horretan.

Patxi Usobiaga bigarrena izan zen Austrian

EIBARKO ESKALATZAILEAK EUTSI EGITEN DIO SASOI ONARI ETA IMST-EN jokaturako Munduko Koparako hirugarren proban bigarren postuan amaitu zuen, top egin eta gero. Bide guztia ederto bete bazuen ere, bera baino azkarrago ibili zen Adam Ondra 16 urteko txerriak garaipena kendu zion.



Munduko Kopako sailkapenean ere, Ondrarena da liderra, Usobiagak baino 20 puntu gehiagorekin. Irailaren 25 eta 26ko asteburuan Belgikako Puursen jokatu da hurrengo proba eta hor eibartarrek jokoan izango du berriro sailkapeneko lidergoa.

Liga hasi aurretik esan dio agur Kopari Eibarrek

PARTIDU OFIZIAL BI BAKARRIK JOKATU DITU Eibar KEk orain arte denboraldi berrian, eta Ponferradan agur esan zion Kopako edizio honi. Bana berdindu zuen Angel Viaderok zuzentzen duen taldeak, baina penaltietan amore eman behar izan zuen (ez da lehenengo aldia Eibar Kopatik kanpo geratzen dela eremu "fatidiko" horretatik).

Liga hasteko partiduan, bestalde, Eibarrek Sestaori irabazi zion Ipuruan (1-0), neurketan oraindik gauza asko hobetzeko dituela erakutsiz. Dena dela, hiru punturekin hasi du denboraldia eta ez da gauza txarra. Aurretik, dena dela, aurrendenboraldi polita egin dute eibartarrek: horrela, Amurriori 2-3 irabazi zioten talde arabarraren zelaian; Barakaldorekin bana berdindu zuten Gobelan Getxo-

ko Arenasen torneoan; Gernikako triangularra bereganatu zuten, Gernika eta Bilbao Athletic-ekin husna berdindu eta gero; Ipuruan egindako aurkezpenean, galdu egin zuten Realarrekin 1-2; Baskoniarekin husna berdindu zuten Basaurin; Getxoko Arenasekin 1-0 galtzea tokatu zitzaizkien; Salamanca Bejarren 0-3 gairatu zuten Bejar Industrial; Zallan ere 1-3 irabazi zuten; eta, azkenik, Real Union baino gehiago izan ziren Zarautzen jokatuak norki gehiagokan.

2. A mailara igotzeko taldea

Aurten aurreko urteetan baino jokalaririk gehiago geratu dira Eibar KEan; urtetik urtera taldea goitik behera aldatzea ohikoa bada ere, oraingoan jokalaririk gutxiago irten dute Eibartik eta, modu horretan, zuzendari-



Kopan aukera gehiagorik ez badu izango ere, horrek gainzama kenduko dio Eibar KEari denboraldirako eta, horrela, Ligan bakarrik zentratzea ahalbidetuko dio.

tzak erakutsi du euren asmoa dela taldeak lehenbailehen galdutako maila berreskuratzea.

Plantila honako jokalariek osatuko dute: Zigor eta Xabier atezainak; Piette, Andres Glez., Urzelai, Añibarro, Garalde, Etxaniz eta Kijera atzelariak; Codina, Cuevas, Lom-

braña, Carlos Ruben, Garro, Valín, Peña, Sutil, Manu García eta Altuna erdilariak; eta German Beltrán, Arruabarrena, Olaizola eta Fali aurrelariak. Epea ia amaitzeaz zegoela, Altuna (Granadatik) eta Fali (Sevillatik) jokalaririk firtxatu ditu Eibarrek



Eibarren partidua ikusteko autobusak

DENBORALDI BERRIRAKO LEHENENGO BIDAIA ANTOLATU DUTE, elkarlanean, Eskozia La Brava peñak eta Premier Class Bidaiek taldearen agentzia ofizialak. Eibar KEk Miranda de Ebron jokatuko du domekan eta egun berean,

goizeko 10.15etan, irtengo dute autobusek Eibartik, partidua amaitzean bueltatzeko. Prezioa 13 eurokoa da, partiduko sarrerak kanpo. Eskozia La Brava hamabi bat irteera egitea aurreikusten du denboraldi honetan.

Asteartero Eibarko alkatiak **HAMAIRA BERBA** Irratsaloan orantzungo ditu, eguadiko 12.30etan. Zure kezka, proposamena, zalantza bidali helbide honetara: eibar@herri-irratia.com SMS bidez: Eibar (nahi duzun mezua) 5868 zenbakira, edo zuzenean telefonoz 943 82 08 44 zenbakira.

90.7 Fm

Gasteiz, Donostia eta Bilboko jaietaz gozatzeko aukera izan da abuztu osoan zehar, baina ez soilik hiri hauetara joanez, baita bakoitzaren etxeko sofan ere. Izan ere, eguardiro Ibon Uzkudun aurkezle eibartarrak jai hauetako giroa eraman du Euskal Herriko etxeetara 'Jai giro' saioaren bitartez.

- Udan jairik-jai ibili zara. Aje ederra edukiko duzu bada...

Egia esan nahiko gogorra izan da lana eta ez dut izan parrandarako aukerarik. Egunean 17 bat ordu egin dugu lan, batzuetan gehiago. Goizean goizetik lanean genbiltzan, eta egun osoan beharrez ibili ostean, gaueko kontzertuetara joan eta lo egin aurretik hurrengo eguneko gidoiari begirada ematen genion gauzak prestatzeko. Izan dezakedana 'lan ajea' izan daiteke, baina ezta hori ere. Izan ere, oso gustura egin dudan lana izan da eta horrela lan eginez gero ez zara hainbeste nekatzen. Nahiko masoka naiz. Gogo handiarekin ekin diot proiektu honi, saioaren zuzendari, aurkezle eta ekoizlea izan bainaiz. Horrela, modu batean esanda nire produktua izanik, oso gustura aritu naiz. Ez naiz aspertu eta fisikoki ongi eutsi diot. Beldur handiagoko nion fisikoari arlo psikologikoari baino.



Uzkudunek, 'Jai giro' tik aparte ere, telebistako hainbat lanetan dihardu gaur egun.



IBON UZKUDUN, telebistako aurkezlea:

"Jaiak ondo pasatzeko dira"

- Jaien barnean murgildu zara, baina pertsonaia famatuekin egoteko aukera ere izan duzu. Nolakoak dira hurbiltasunean?

Oso jatorrak izan dira denak. 'La Oreja de Van Gogh'-ekoekin egon naiz, 'Nena Daconte'-rekin, 'Reincidentes'-ekin, hiriburuetako alkateekin, Gabino Diegorekin, Aritz Adurizekin... Diren moduan agertu dira kamararen aurrean. Eurekiko errespetua izatea zaindu dut, horrela, eurak dinamika horretan sartu eta oso ondo moldatu gara. Momentu oro prest azaldu dira eta lana errazagoa egiten da horrela."Elkarrizketa amaitu dugu jada?", aipatzen zidaten.

- Jaietan dabilen jendea menderatzea ez da bada erraza izango?

Saioan ez dugu irudi gogorrik kendu, beraz, ikusi denez jendea ondo portatu da gurekin. Saltoka etortzen baziren zu ere saltoka hasi eta eurekin murgiltzen zinen. Saioa zati bitan banatzen saiatu gara: zati bat parranderoa zen eta beste an istorio bat kontatzen saiatzen ginen. Zati parranderoan errespetuz hartu gaituzte edonon. Euren martxan sartzen ginen eta giro ederra sortzen zen. Bagenekien non sartzen ginen saioa egiterako orduan, beraz, onena zu ere jai-giroan murgiltzea zen. Dena ondo jo-

kalea eta jendea oso gertukoa da, giro onekoa. Donostiako jaiak serioagoak zirela uste nuen, baina harritu egin naute herri mailan parte-hartzeko antolatzen diren ekitaldi ugariak. Portuan, adibidez, kuadriletako ekitaldi ezberdinak antolatzen ziren. Beraz, izozki eta suen mita hori ez da egia, egunean zehar ere giro handia dagoelako. Gero eta jai herrikoia goak dira. Bilbo, bestetik, hiri bezala ikusten dute askok, baina jaietan herri txiki baten itxura hartzen du. Hiri osoan zehar antolatzen dira ekitaldiak, baina Alde Zaharrean eta txosnen inguruan sortzen den giroa berezia da. Gainera, egun osoan daude gauzak egiteko, ez soilik gauean.

- Busti zaitetz: nongo jaiak dituzu gustuko?

Parrandan aritzeko Gasteiz da egokiena, lan egiteko Bilbo eta paisaia ederrekin juergan ibiltzeko Donostia. Bat esatekotan, orokorrean, Bilbo auke-ratuko nuke.

- Behin jaiak amaituta, zein aho-zapore geratzen zaizu?

Euskal Herriko jai hauek oso giro onean bizi direla azpimarratuko nuke, eta pantailan hori islatzen saiatu naiz. Oso esperientzia ona izan da. Nahiz eta ahotsa izorratu, katarroa izan eta nekea somatu, merezi izan du saioa egiteak. Beste herriek jai hauek eredu bezala hartu behar dituzte, jaiak ondo pasatzeko direlako eta ez tira-biraka ibiltzeko.

an da eta ez dugu arazorik eduki. Zortea izan dugu agian.

- Gasteiz, Donostia eta Bilboko aste nagusietan ibili zara. Nola definituko zenuke ba-koitza?

Gasteizeko jaiak dira herrikoienak. Egun guztia kalean ematen du jendeak (blusa eta neskak) eta zeharo murgiltzen dira jaietan. Bizirik egoten da


NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA

BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

Orain Elgoibarko
NETTON ere bagaude

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com

ARRATEKO AMAREN JAIAK 2009

irailaren 7, 8 eta 13an



antolatzailea:
EIBARKO UDALA

laguntzaileak:

ANDIRAO ELKARTEA, ...ETA KITTOI, BETIKUAK,
EIBARKO KLUB DEPORTIBOA, KEZKA DANTZA TALDEA



Artea izango da aurtengo bekarako gaia. Irudian, San Martinen alarguna eta Oier semea.

Juan San Martin ikerketa bekarako deialdia zabalik

URRIAREN 11-RA ARTE AURKEZTU DAITEZKE JUAN SAN MARTIN IKERKETA BEKARAKO ESKAERAK. Aurtengo ikerketa gaia artea izango da eta eskaerak aurkeztu ahal izateko, besteak beste, diplomatua, maila bereko tituluduna edo goi mailako tituloduna izan behar da eta EGA edo baliokide den tituluren bat izatea ere eskatzen dute. Informazio gehiagorako www.eibar.net helbidera jo daiteke. Eskaerak, berriz, Pe-

goran herritarren zerbitzurako bulegoan hartuko dituzte. Irailaren 15era arte 09.00etatik 13.30etara egongo da zabalik; irailaren 16tik 30era astelehentik egunera 09.00etatik 13.30etara eta 17.00etatik 19.30etara eta barixakuetan 09.00etatik 13.30etara hartuko dute jendea; eta urrian, astelehentik egunera 09.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 19.30etara eta barixakuetan 09.00etatik 14.00etara.

Laburmetrai Jaialdia martxan

'ASIER ERRASTI' LABURMETRAI JAIALDIAN PARTE HARTZEKO izen-ematea zabalik dago. Aurten X. Edizioa beteko du jaialdiak eta nahi duenak Pegorara pelikulak bidali ahal ditzake urriaren 9ra. Jaialdia, bestetik, azaroaren 16tik 21era egingo da Coliseoan.

Plano Corto elkarteak eta Udalak antolatzen dute jaialdi hau Asier Errasti jaialdi honen bultzatzailea gogoratzeko. Aurtengo edizioan 2008 edo 2009an grabatutako 30 minutu azpiko filmek hartu ahal izango dute parte.



"Pim, pam, pum" aurreko edizio batean saritua izan zen laburmetraiaren irudia.

Ustekabekoak Bergarako Sanmartinetan

UDAN HERRIRIK HERRI JAIK ALAITZEN JARDUN ETA GERO, Ustekabekoek irailaren 12an dute hurrengo hitzordua, Bergaran, bertan ospatuko dituzten Sanmartinetan. Eibartarrek azaldu digutenez, "ez da Bergaran jotzeko izan dugun lehen eskaintza, baina tamalez,

arrazoi bat edo beste tarteko, orain arte ez dugu bertan jotzeko aukerarik izan. Baina oraingoan bai, ailegatu zaigu herri honetako kaleak alaitzeko garaia. Irailaren 12an eguerdian hasiko gara jotzen eta bertan bazkaldu ondoren, arratsaldeko 19.00ak arte jardungo dugu".



Helduen irakaskuntzarako matrikula zabalik

IRAILAREN 1-ETIK 6-RA (BIAK BARNE) IZENA EMAN DAITEKE HELDUEN IRAKASKUNTZA ZENTRUAN (HHI), Isasi kaleko 39. zenbakian 15.00etatik 21.00etara. Aurtengo ikasketen artean, bestetik, honakoak aurkitu daitezke: alfabetizazioa, atzeritarrentzat ikastaroak (gaztelera ikasteko eta alfa-karnera), Bigarren Hezkuntza Gra-

duatua lortzeko ikastaroak, 25 urtetik gorakoentzako Unibertsitatetarako sarrera prestakuntza, oinarrizko prestakuntza, oinarrizko informatika ikastaroak, eta ingeles eta euskara ikastaroak. Informazio gehiago lortzeko zentrorra bertara jo, 943 20 88 56 telefonora deitu edo www.elkarrekin.org/web/epaeibar webgunea bisitatu.



Folkez Blai-en edizio berria

FOLKAK ERMUA HARTZEN DU URTEAN ASTEBURU BATEZ. Izan ere, azken urteetako joerari jarraituz, Folkez Blai jaialdia egingo da irailaren 11tik 13ra, eta musika mota honen inguruko talde ugari bilduko dira bertan. Aurtengoan honako taldeak izango dira Ermuan: irailaren 11an Quamlibet (Valentzia), Sokaide (Araba), Vallarna (Valladolid), Iazko irabazlea eta Flipin Folk (Ermua-Eibar); irailaren 12an Nemon (Ermua), Lochlainn (Valentzia) eta Mauvais Sort (Quebec-Kanada); eta irailaren 13an Zamburuja (Valladolid) eta Dúo Núa (Madrid). Informazio gehiago www.myspace.com/festivalfolkezblai webgunean.

Kontzertuez gain, bestetik, tailer ezberdinak eskainiko dira hilaren 12 eta 13an. 10.00eta-



Folka nagusi izango da Ermuan irailaren 11tik 13ra. Argazkian, Dúo Nua madrildarrak.

tik 13.00etara Gaita Galego (Abraham Fernandez irakaslearekin), Gitarra Zelta (Jesus Enrique 'Chuchi'), Uilleann Pipe (Cesar Pastor) eta Bibolin Zelta (Eoghan Neff) tailerrak emango dira. 15.00etatik 18.00etara, bestetik, Txalaparta (Mikel Aveiro), Whistle (Abraham Fernandez) eta Bou-

zouki (Carlos Martin) ikastaroak. Tailer batetan hartzeko prezioa 40 eurokoa izango da eta bitan 70 eurokoa. Izena emateko epea hilaren 9an amaituko da, eta horretarako izena eta abizen bi folkezblai@hotmail.com helbidera idatzi, edo 665 722 817 (Iñaki) edo 685 730 419 (Pau) telefonora deitu.

Saria Manzanares toreatzailearentzat




EIBARKO PEDRUCHO ZEZENALEEN ELKARTEAK 2009ko Azpeitiko San Ignazio ferriako Estokada Onenaren Pedrucho Saria eman zion Jose Maria Manzanares toreatzaileari abuztuaren 10ean. Saria jasotzeko meritua eman dion estokada 26 zenbakiarekin ferratutako 'El Ventorrillo'-ko 'Boticario' zezenari abuztuaren 1ean emandakoa izan zen. Saria Jaime Lopez de Guereñu presidentearen eta zezen-taldeko beste kide batzuen eskutik jaso zuen toreatzaileak.

Juan San Martin liburutegiaren iraileko ordutegia

IRAILEAN ORDUTEGI BEREZIA IZANGO DU JUAN SAN MARTIN LIBURUTEGIAK: irailaren 1ean hasi eta hilaren 11ra arte, astegunetan egunero 09.00etatik 20.30etara egongo da zabalik (hilaren 8an, Arrate egunean itxita egongo da); eta hilaren 14tik 30era arteko ordutegia honakoa izango da:

09.00etatik 13.30etara eta 16.00etatik 20.30etara. Bestalde, iraileko lehenengo hiru asteburuetan (hilaren 5ean eta 6an, 12an eta 13an eta 19an eta 20an) liburutegia itxita egongo da eta azken asteburuan (hilaren 26an eta 27an) 10.00etatik 13.00etara eta 16.00etatik 20.00etara zabalduko dute.



laburrak

MATRIKULAZIOAK

Egunotan hainbat ikastarotan izena emateko epea martxan dago: Juan Bautista Gisasola Musika Eskolako matrikulazioa irailaren 10era arte egongo da zabalik (informazioa Pegoran eskatu daiteke). Udal Euskaltegian izena emateko aukera, berriz, hilaren 23ra arte egongo da (informazioa Udal Euskaltegian, 943700912 telefonoan). AEK-n, berriz, hilaren 28ra arte eman daiteke izena (informazioa AEK Euskaltegian, 943201379 telefono zenbakian). Kezka dantza taldean izena eman nahi duenak, irailaren 14an eta 15ean Portalera joan beharko du, 18.00etatik 19.00etara eta, bestela, 943530440 telefono zenbakira deitu daiteke, informazio gehiago eskatzeko. Eta Afariketako programan izena emateko, irailaren 21ean eta 22an Amaña, Urki eta Urkizuko ludoteketara joan daiteke, 16.00etatik 18.00etara edo, bestela, hilaren 23an, 24an eta 25ean Portaleara, 10.00etatik 13.00etara. Informazio gehiago behar izanez gero, Astixara deitu daiteke, 943206231 telefono zenbakira.

1959-AN JAIOTAKOAK

Urte horretan jaiotakoak urriaren 31n elkartuko dira, Arrate hotelean elkarrekin bazkaltzeko. Joan nahi dutenek 80 euro sartu beharko dituzte, izena eta abizen biak emanda, Banestoko kontu korrante honetan: 00303434740000405271

ERAKUSKETAK

Udako etenaldia eta gero, irailaren 11an ikasturteari ekingo dio Topalekuak, Jara Larreategiaren erakusketa batekin. Irailaren 20ra arte egongo da zabalik erakusketa eta irailaren 25etik 4ra, berriz, Maria Teresa Unzueta artistaren lanek hartuko dute erreleborako txanda.

horoskopoa

ARIES

Beti geratzen zaizu sentsazio berdina: ez duzula uda behar bezain beste aprobe txatu. Baina pentsa egin dituzun gauza guztietan. Ez dira gutxi!

TAURUS

Indarberrituta ekingo diozu denboraldi berriari. Ea betetzen dituzun buruko asmo guztiak eta dena pentsatu bezala iritertzen zaizun.

GEMINI

Ez duzu uste nahikoa dela? Lagunak kokoteraino daude zure udako pasadizoak entzuten! Argazkiak erakustea bakarrik falta zaizu.

CANCER

Kostako zaizu berriz ere hemengo bizimodura egokitzea, baina egun edo aste batzuetako kontua izango da. Uda gozatu duzun seinale.

LEO

Zeinen azkar pasatzen den abuztua, ezta? Ondo aprobe txatu duzulako da hori. Orain beste gogo batez ekingo diozu hasten den sasoi berriari.

VIRGO

Aldatuta etorri zara udako oporretatik. Zer gertatu zaizu bada? Nor ezagutu duzu? Egia esan, orain beste poztasun batekin zabilzta.

LIBRA

Tira, anima zaitzez! Berritua ere egunerokotasunean murgiltzeagaitik ez da mundua amaitzen. Bere alde onak ikusten saiatu zaitzez.

SCORPIUS

Nolako hilabetea pasa duzun! Emozioz bete, abenturaz josia eta alaitasunez blai. Orain guztia kontatu beharko diezu ezagunei.

SAGITTARIUS

Behar zenuen horrelako uda pasatzea. Berriz ere alai sentitu zara, bizi-bizi, eta horrek asko lagunduko zaitu hurrengo aste eta hilabeteotan.

CAPRICORNIUS

Arazo guztiak atzean utzi dituzu eta momentu zoragarria biziko duzu hemendik aurrera. Terapia bezala oso ondo etorri zaizu uda.

AQUARIUS

Uda zoragarria izan da... eta itzulera? Patrikan eskua sartu eta hutsik. Diru gehiegi xahutu al duzu? Hori dirudi. Ea nola moldatzen zaren orain.

PISCIS

Denak oporretan joan aurretik bezala jarraitzen du. Berdin-berdin. Aldatu den bakarra zure burua izan da, esperientzia berrien eraginez.

eguraldia (EUSKALMET.NET)

**Arrateetarako eguraldi ona**

Egun batzuk falta badira ere, aurreikuspenak onak dira Arrate egunerako eta badirudi eguraldia lagun izango dugula. Atzoko fronte txikia urruntzen doan neurrian, eguraldi gero eta hobea egingo du eta tenperaturak ere gorantz egingo du erreparorik gabe.

JAIOTAKOAK


- Julen Gómez Bastida. 2009-VI-2.
- Katrin Alzelai Cid. 2009-VI-3.
- Marwa Raja Benomar. 2009-VI-4.
- Nora Mujika Aguado. 2009-VI-8.
- Salma Samadi. 2009-VI-10.
- Rubí Valdés Valdés. 2009-VI-11.
- Beñat Hernández Arce. 2009-VI-12.
- Manex Alberdi Rguez. 2009-VI-13.
- Iruene Mulas Pérez. 2009-VI-15.
- Nuria Lorenzo Aguilar. 2009-VI-17.
- Ainhoa Vicenzio Castro. 2009-VI-18.
- Markel Martín Cerezal. 2009-VI-23.
- Unai Anartz Román Fdez. 2009-VI-24.
- Ugaitz Goitandia García. 2009-VI-25.
- June Gisasola Zabaleta. 2009-VI-25.
- Unai Gómez Llamas. 2009-VI-27.
- Mikel Baqué Garramiola. 2009-VI-30.
- Abdel Karim Jabaloyas. 2009-VII-2.
- June García Gonçalves. 2009-VII-2.
- Naia Larrañaga Arrate. 2009-VII-4.
- Ramon Arkaitz Urkia Tifa. 2009-VII-9.
- Kepa Urkizu Pérez. 2009-VII-10.
- Mikel Aizpun Tudanca. 2009-VII-12.
- Oihán Hidalgo Díez. 2009-VII-14.
- Koldo Sendino Suárez. 2009-VII-15.
- Aratz Azkuna Ibarra. 2009-VII-17.
- Ane Laskurain Olañeta. 2009-VII-18.
- Hidayat El Kamili Adouzi. 2009-VII-20.
- Iker Etxebarria Laka. 2009-VII-23.
- Julen Albistegi Ormaetxea. 2009-VII-24.
- Malen Sánchez García. 2009-VII-26.
- Iris Ruiz Bratos. 2009-VII-28.
- Tania Valdés Etxebarria. 2009-VII-29.
- Izei Avilés Bogajo. 2009-VIII-1.
- Leila Aghbalou Jebari. 2009-VIII-3.
- Malen Kortaberria Bedaio. 2009-VIII-4.
- Ismael Basri. 2009-VIII-4.
- Udane Esteban Rodríguez. 2009-VIII-6.
- Danel Larrarte Samper. 2009-VIII-6.
- Unax Unanue Larrañaga. 2009-VIII-14.
- Luis A. Valverde Romero. 2009-VIII-15.
- Sara Rivas García. 2009-VIII-19.
- Amaia Azpiroz Anitua. 2009-VIII-19.
- Magwa Touimi. 2009-VIII-24.

HILDAKOAK


- María Sánchez Iglesias. 80 urte. 2009-VI-2.
- Jose Marcos Vivar. 53 urte. 2009-VI-3.
- Lino Fernández Lusares. 53 urte. 2009-VI-3.
- Ramon Vitoria Aranzabal. 77 urte. 2009-VI-4.
- Mario Matías Dos Angeles. 59 urte. 2009-VI-7.
- Domingo Zabala Sololuze. 81 urte. 2009-VI-7.
- Eusebio Berasaluze Agirre. 59 urte. 2009-VI-8.
- Justa Tobes López. 100 urte. 2009-VI-9.
- Justo Lejardi Madariaga. 86 urte. 2009-VI-11.
- Cecilia Aldalur Etxebarria. 86 urte. 2009-VI-14.
- Sara Iglesias Mojón. 84 urte. 2009-VI-15.
- Justina Barrenetxea Arizaga. 94 urte. 2009-VI-16.
- Claudia Andueza Menéndez. 91 urte. 2009-VI-20.
- Jose Ramon Retana Usieto. 60 urte. 2009-VI-21.
- Herminia Ordax Holguín. 84 urte. 2009-VI-23.
- Eulogia Oregi Galarraga. 100 urte. 2009-VI-24.
- Pello Aranzeta Aristondo. 62 urte. 2009-VI-25.
- Jose Manuel Garrido Ferro. 84 urte. 2009-VI-25.
- Iñigo Lejarza Uriarte. 62 urte. 2009-VI-26.
- Jose Miguel Anabitarte De la Teja. 72 urte. 2009-VI-28.
- Lucia Glez. de Artaza Iduya. 90 urte. 2009-VI-30.
- Maribel Aranzeta Ormaetxea. 60 urte. 2009-VI-30.
- Jose Antonio Carrero Sánchez. 49 urte. 2009-VII-1.
- Ana M^o Iraolagoitia Ariño. 62 urte. 2009-VII-1.
- Pedro Jose Linares González. 64 urte. 2009-VII-3.
- Fernando Arosa Iriondo. 67 urte. 2009-VII-4.
- Manuel Zufiria Roteta. 80 urte. 2009-VII-5.
- Isidoro García Macho. 96 urte. 2009-VII-11.
- Jose Manuel Azpiri Atxa. 76 urte. 2009-VII-11.
- Concha Iriondo San Ildefonso. 82 urte. 2009-VII-13.
- Miguel Lizarralde Gorostidi. 73 urte. 2009-VII-16.
- Roberto Isasi Jaio. 73 urte. 2009-VII-17.
- Eufemia Antón Prieto. 81 urte. 2009-VII-18.
- Angel Bergara Zurutuza. 77 urte. 2009-VII-19.
- Josefa Ojanguren Maiztegi. 84 urte. 2009-VII-19.
- Purificación Laguna Suárez. 82 urte. 2009-VII-20.
- Angel Bouzo Dopazo. 81 urte. 2009-VII-21.
- Alejandro Lizarriturri Barrutia. 95 urte. 2009-VII-21.
- M^o Luisa Garagarza Ibarzabal. 79 urte. 2009-VII-23.
- Jesus M^o Baglietto Arana. 76 urte. 2009-VII-23.
- Martzel Ajuria Etxebarria. 83 urte. 2009-VII-23.
- Roberto Basterrika Miliukua. 75 urte. 2009-VII-23.
- Julian Orte Carrera. 78 urte. 2009-VII-27.
- Agustín Egiazu Kortazar. 76 urte. 2009-VII-28.
- Jose Luis Amas Alzibar. 76 urte. 2009-VII-28.
- M^o Isabel López Fernández. 84 urte. 2009-VII-29.
- Nerea Atxotegi Zurikarai. 2009-VII-29.
- Julio Pacheco Barracel. 77 urte. 2009-VIII-9.
- Benito Ortiz de Zarate Arrinda. 84 urte. 2009-VIII-15.
- Antonia Prat Barrenetxea. 93 urte. 2009-VIII-18.
- María Begil Agirre. 87 urte. 2009-VIII-18.
- Benedicta Carneros Omatos. 76 urte. 2009-VIII-19.
- Rosa M^o Gómez Gutiérrez. 66 urte. 2009-VIII-21.
- Juan Gisasola Suinaga. 86 urte. 2009-VIII-24.
- Javier Etxegarai Del Campo. 66 urte. 2009-VIII-27.
- M^o Teresa Aiarza Igartua. 68 urte. 2009-VIII-28.
- M^o Luisa Zubimendi Iburguren. 81 urte. 2009-VIII-28.
- Eduardo Gonzalo García. 87 urte. 2009-VIII-31.
- Begoña Alberdi San Torcuato. 84 urte. 2009-IX-1.
- Lucia Mugartegi Kalzakorta. 74 urte. 2009-IX-1.
- Rosa M^o Barrenetxea Arrizabalaga. 61 urte. 2009-IX-1.
- Elena Corbillón Colmenero. 45 urte. 2009-IX-2.

laztanak emoten...

Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 8 euro (...eta kitto!ko bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.




Zorionak, MAIALEN Agirregomezkorta Dieguez, 29xan urtia bete dozulako. Muxu haundia famelixaren partez.




Zorionak, GAIZKA Zuazo Zuazua, martitzenian urtia egin zenduan-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.




Zorionak, ALAITZ, eguaztenian urte bi betekoz-eta. Patxo haundi bat famelixaren partez.



Zorionak, MONIKA, abuztuaren 26xan urtiak bete zenduaz-eta. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, NOAH, Arrate egunian urte bi egingo dozuzelako. Muxu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak etxeko "LEHOLeri", udan urtiak egin dozuez-eta.

famaziak

4, barixakua

EGUNEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Ugarte** (Sta. Zezilia, z/g)

5, zapatua

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

6, domeka

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

7, astelehena

EGUNEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

8, martitzena

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

9, eguaztena

EGUNEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)
GAUEZ **Aranburu** (Gipuzkoa etor., 46)

10, eguena

EGUNEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Alberdi** (Zubiaurre, 9)

11, barixakua

EGUNEZ **Urizar** (J. Etxeberria, 7)
GAUEZ **Barandela** (Z. Agirre, 4)

lehiaketak

- Indalezio Ojanguren XXII. Argazki Lehiaketa.


Lanak aurkezteko epea: Urriaren 10era arte. Informazioa: Pegoran.

- Asier Errasti Eibar X. Laburmetraia Jaialdia.

Lanak aurkezteko epea: Urriaren 9ra arte. Informazioa: Pegoran.

- Expoadintsu 2009rako Argazki Lehiaketa.

Gaia: Pertsona nagusiak. Lanak aurkezteko epea: Irailaren 14ra arte, Debegesan.



Abuztuaren 4an jaixo zan MALEN. Zorionak famelixari.

bekak

VIII. JUAN SAN MARTIN BEKA.

Ikerketa esparrua: Artea. Eskaerak eta informazioa: Urriaren 11ra arte, Pegoran edo Portalean.

GOTZON GARATE BEKA 2009.

Ikerketa esparrua: Elgoibarko Toponimia. Eskaerak eta informazioa: Elgoibarko Udaleko Euskara Saila (943 74 43 66 euskara@elgoibar.org)

diru-laguntzak

UMEAK ESKOLARA 2009.

Onuradunak: Eibarko erroldan dauden 1994ko urtarrilaren 1etik 2003ko abenduaren 31ra bitartean jaiotako umeak. Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro ume bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

DIRU-LAGUNTZAK IKASLEEI.

Onuradunak: Irakaskuntza arautuko edo lanbide prestakuntzako ikasleei zuzenduta (1984ko urtarrilaren 1etik 1993ko abenduaren 31ra bitartean jaiotakoak). Zenbatekoa: Gehien jota 60'10 euro gazte bakoitzeko. Informazioa eta eskaerak aurkeztea: Irailaren 1etik abenduaren 1era arte. Pegoran.

telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa.....	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa.....	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	901 20 20 20
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak.	943 46 46 22
Gurutze Gorria..	943 22 22 22
Mendaro osp.....	943 03 28 00
Anbulategia.....	943 03 25 00
Torrekoa.....	943 03 26 50
Errepideak.....	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	902 54 32 10
Pesa	902 10 12 10
Taxiak.....	943 20 30 71
.....	943 20 13 25
Alkohol.Anon. ..	629 14 18 74
Al-Anon/Alateen	650 26 59 63

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.30, 08.50, 10.30, 13.30, 14.50 eta 18.30. Laneguna: 07.00, 08.00, 15.30 eta 21.05. Jaieguna: 09.50, 13.30, 18.30 eta 20.50. **DONOSTIA-EIBAR.** Egutero: 12.50, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30, 13.30, 14.30 eta 18.30. **EIBAR-BILBO.** Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapatua eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. **EIBAR-GASTEIZ.** Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapatua: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. **GASTEIZ-EIBAR.** Egutero: 08.50, 12.50, 16.30 eta 20.50. Jaieguna: 08.50, 10.50, 12.50, 16.30, 18.50 eta 20.50. **EIBAR-IRUÑA.** Laneguna: 07.45 eta 13.50. Jaieguna: 07.50 eta 18.00. **IRUÑA-EIBAR.** Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. **EIBAR-ARRATE.** Zapatua: 14.00. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. **ARRATE-EIBAR.** Zapatua: 14.30. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. **EIBAR-ELGETA.** Laneguna: 13.50 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. **ELGETA-EIBAR.** Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.50 eta 19.30. **ERMUA-MENDARO.** Astelehenetik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdio). Zapatua-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. **MENDARO-ERMUA.** Laneguna: 06.55-etik 21.55-etera orduerdio. Zapatua-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.15etatik 21.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **BILBO-EIBAR.** Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.54. **EIBAR-DURANGO.** Egutero: + 22.18. **EIBAR-DONOSTIA.** Laneguna: 06.15etatik 20.15etara ordu. + 10.35 eta 21.38. **DONOSTIA-EIBAR-ERMUA.** Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

1. Etxebizitza

1.1. Salgai

– Eibarko erdialdean pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Balkoi bi. Dena kanpora begira. Sartzeko moduan. Tel. 943-206322 edo 943-200547.

– Pisua salgai Eibarko erdialdean. Sartzeko prest. Aukera paregabea. Tel. 629-533695.

– Legarreko dorreetan pisua salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, komun bi, balkoia eta despentsa. Aukera paregabea. Tel. 653-733357.

1.2. Errentan

– Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Merke. Tel. 659-148649. Angelica.

1.3. Konpartitzeko

– Neska bi behar dira logela konpartitzeko. Ohe bi eta bainugelarekin. Donostia-ko EHUren ondoan. Merke. Tel. 665-700027.

1.4. Etxe-trukaketa

– Elgoibarko Babes Ofizialeko pisua (Toletxegain geltoki parean) Eibarko beste batengatik aldatuko nuke. 70 m². Logela bi, egongela, sukaldea, komuna eta trasteroa. Garajea. Tel. 659-381317.

2. Motorra

2.1. Salgai

– C-15 furgoneta salgai. 12 urtekoa. 250.000 km. Egoera onean. 800 euro. Tel. 677-388629 edo 943-201504.

4. Lana

4.1. Lan bila

– Pladurista eta kamarero moduan esperientzia duen mutila eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 638-078908.

– Soinuan masterra duen neska eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 629-771791.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko gau osoan. Tel. 648-196651.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Orduka. Tel. 638-938307.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 616-822781.

– Gizona eskaintzen da furgonetarekin banaketa lanak egiteko. Tel. 671-141677.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxean, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak, garajeak: alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. Autoak: 10 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. **Iragarkiak ipintzeko: 943-200918.**

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

1.2. Errentan

1.3. Konpartitzeko

1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

2.1. Salgai

3. LOKALAK

3.1. Salgai

3.2. Errentan

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Edozein ordutan. Tel. 638-482478.

– Emakumea eskaintzen da orduka garbiketa lanak egiteko eta etxean edo ospitalean nagusiak zaintzeko. Tel. 630-410724. Dora.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 608-897639 edo 943-743618.

– Gizon gaztea eskaintzen da nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Tel. 652-047223.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 686-435056.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Egunez zein gauetz. Tel. 656-493864.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 660-367298.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 636-302237.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 662-423898.

– Neska arduratsua eskaintzen da umeak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 663-655509.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 659-080186.

– Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 662-113509.

– Neska arduratsua eta euskalduna eskaintzen da umeak zaintzeko. Tel. 685-724192.

– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 680-223378.

– Gizona eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 616-260793. Luis Eduardo.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-966611.

– Emakumea eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 664-881835.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 669-311385.

4. LANA

4.1. Lan bila

4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

5.1. Eskaerak

5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

6.1. Salgai/Erosgai

6.2. Eman

6.3. Galdu/Aurkitu

6.4. Bestelakoak

– Gizon euskalduna eskaintzen da edozein lanetarako. Tel. 658-719676. Enrike.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Interna edo externa. Tel. 646-235195.

– Neska eskaintzen da nagusiak zaindu, sukaldari laguntzaile moduan eta tabernetan harrikoa egiteko. Tel. 645-461600. Arrate.

– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Interna edo externa. Tel. 669-966611.

– Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanetarako. Tel. 648-603029.

4.2. Langile bila

– Eibarko hortz-klinika baterako laguntzailea behar da. Beharrezkoa da esperientzia izatea. Kurrikuluma bidaltzeko: 943-208475 fax zkia.

– Neska behar da tabernan arratsaldean lan egiteko. Tel. 943-208130.

– ...eta kitto! astekariak banatzaileak behar ditu. Tel. 943-200918.

– Emakume euskalduna behar da umeak zaindu eta etxeko lanetarako. Tel. 659-751648.

– Taxiaren lizentzia transferitzen da Eibarren, jubilazio batengatik. Tel. 608-875175.

5. Irakaskuntza

5.2. Eskaintzak

– Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrak emango lituzke. DBHra arte. Tel. 662-113509.

– Neska arduratsua eta euskaldunak klase partikularrak ematen ditu Eibarren. DBHra arte. Tel. 685-724192.

– Ingeniari teknikoak Matematikak, Fisika, Kimika eta Dibujoko klase partikularrak ematen ditu Eibarren. DBH eta Batxilergo mailak. Tel. 692-596157.

6. Denetarik

6.1. Salgai

– Bigarren eskuko ordenagailua (portatila edo mahaikoa) erosiko nuke. Tel. 943-702264.

– Setter ingles arrazako txakurrak salgai. Prezioa: 150 euro. Tel. 645-005943. Jon.

6.2. Eman

– Arratoiak harrapatzeko katu zein katakumeak oparitzen ditut. Tel. 615-729400. Igor.

– Oso mantsoa eta polita den katakumeak etxea behar du. Hiru hilabete ditu eta egurtua izan da. Tel. 656-758793.

6.3. Galdu/Aurkitu

– Abuztuko lehenengo astean argazki-kamara galdu nuen Barrena edo Barakaldo inguruan. Aurkitu baduzu, deitu mesedez. Tel. 665-792861.

koipea MURRIZTU muskulu-ehunari EUTSI
ildaskak KENDU muskulatura INDARTU



BONOA 5 saioekin

30 minutuko masajea
edo erreflexologia OPARI

5 saio 150 euro 30 saio bat 30 euro

BEGIBISTAKO EMAITZEKIN
LEHENENGO SAIOTIK

Aurpegiaren fotogaztetzea. Antizelulitikoak
eta erreamfirmanteak. Opari bonoak.
Masajeak. Mikropigmentazioa. Solariuma.

CAPI MEDIKUNTZA
ESTETIKOA

Zimurrak (Botox). Mantxak. Barizeak-Couperosis.
Azido hialuronikoa. Bitaminak.

Bidebarrieta, 5

Tel. 943 201 547

Laser depilazioa

ezpainak	10 €
izterondoak + besapeak ...	100 €
erdiak	120 €
erdiak + izterondoak	160 €
osoak	200 €
osoak + izterondoak	250 €

**ZIMURRAK
GUTXITU
ETA AZALA
SUSPERTZEN DU**



Gaztetze
teknika
integrala

**AURPEGIKO
GIHARRAK IGO ETA
TONIFIKATZEN DITU**

I AM
TÚ ERES

Eibar ulertzeko, euskara.

GU GARA

VOUS ÊTES
ELES SÃO

09-10 IKASTURTEA

Eibarko Udalak
eta HABEK
diruz lagundutako
zentroa
Bekak

Eibarko Udal Euskaltegia
25.
urteurrena

ESKAINNTZA

Euskalduntze eta alfabetatze **ikastaroak**
3. maila (EGA) **egunero eta astean bitan**

Azterketa prestakuntza:
HABEren 1. eta 2. mailak
(Perfilekin homologatuta)

Titulu ofizialak

IKASTARO BEREZIAK

Autolkaskuntza: **BOGA programa**
(tutoretzak eta mintzasaiolak)

Gurasoentzako **ikastaroak**

Etorikinentzako **harrera-ikastaroak**

EGAtik gorakoak: **sakontze, itzulpengintza,**
Euskaltzaindiaren arauak, 4. maila...

Eibarrera

Mintza-praktika **ikastaroak**

Talde bereziak: **merkatariak, jubilatua,**
bulegariak, ostalariak...

Ikastaroak enpresetan

**EIBARKO
UDAL
EUSKALTEGIA**

Bista Eder 10 -PORTALEA-

euskaltegiaeibar@telefonica.net

Telefona: 943 70 09 12 Faxa: 943 82 00 89

**Klase teoriko
zein praktikoak**
norberak nahi
dituenean

Klase teorikoak
**ikusentzunezkoen
abantailak**
erabilita

Merkantziak
eta bidaiariak
garraiatzeko
nazioarteko
agentzia **ziurtagiriak**
lortzeko ikastaroak

**GIDATZEKO
KARNET
GUZTIAK**

SOLOZABAL


autoeskolak

**Estaziño kalea, 8
Tel. 943 70 23 78**

BERRIA: T. Etxebarria, 7 Tel. 943 70 23 84




ZERBITZUA



ADMINISTRAZIOA



BILERAK



GESTIOA

EUKI

T. Etxebarria, 1 - behea Tel. 943 20 42 99

KOMUNITATEAK